#163
DOAN

2022 · 06 · 08
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA hemen

SEKTORE FEMINIZATUAK:
Zaintza sektoreko langileawk bizi duten prekarizazioaz mintzatuko dira Amurrion 14-15 or.

MARIA LOPEZ VELLOSO:
“Zientzian dauden genero rolak aldatzea da gure proiektuaren helburua” 18-19 or.

“Aniztasunean bizitzearen harrotasuna ospatuko dugu”

LAUDIO 6
Lan baldintzen urraketak salatu dituzte Laudioko Kultur Etxeko langileek
Udalari leporatzen diote zerbitzua kontratatzeko “plegu erridukuluak” egitea

AIARA 9
Osakidetzak erdira murriztu du medikuaren pazienteen kupoa
Duela 20 urtetik familia mediku den Roberto Gonzalez sumindu du erabakiak

AIARALDEA 10
1,5 milioi euroko hiltegi proiektua aurkeztu du SOS Baserriakek
Ekimen pribatuko hiltegia eraikitzea da asmoa, erakundeen babesarekin

KULTURA 22-23
Sashel Calderón Camacho poesia idazle gazteak lehen saria eskuratu du
Poetas en Mayo nazioarteko jaialdiko Poesia Paperezko Ahozapietan Lehiaketan

KIROLA 26
Olatz Camino txirrindulariak Euskadiko Txapelketa irabazi du
Bigarren urtez jarraian gailendu datxapelketan. Beste hainbat sari ere lortu ditu, eta nazioartera begira jarri da

G!
Graf!k
Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
grafik.eus

KALITATEZKO PRODUKTU KORPORATIBOAK

Zure markaren komunikazio eraginkorrerako behar dituzun **kalitatezko produktuak** diseinatu eta ekoizten ditugu.

elkarrizketa

“Hiri handietatik kanpo ere LGTB harrotasuna existitzen da”

JOSU ALBISUA, PAULA BARCELO, BAMBI eta **LUCIA ITURBE** (Amurrio, 1999) BURU-BELARRI ARI DIRA LGTB HARROTASUNA ALDARRIKATZEKO PRESTATU DUTEN EGITARAUA ANTOLATZEN. EKAINAREN 18AN HAINBAT EKINTZA EGINGO DITUZTE AMURRION.

Testua eta argazkiak
Aimar Gutierrez Bidarte

Hilabete osoko egitaraua prestatu duzue, LGTB harrotasunaren egunaren testuinguruan. Zer da zehazki pretsaturikoa?

Ekainaren 18an egun osoko egitarau prestatu dugu. Pregoia irakurriko dugu herriko plazan eguerdiko 13:00etan, eta jarraian tabernaz taberna arituko gara. Herri bazkaria egingo dugu parkean, doakoa izango dena, eta arratsalderako ikuskizun desberdinak prestatu ditugu parkean. Alde batetik, Yogurinha Borovak 'Mari, Meri eta Lari' antzezlana eskainiko du, haurrei zuzendua dagoena. Jarraian, gure lagun batzuek Drag Queen Show-a eskainiko dute: 'Haus of Whores'. Eguna amaitzeko, manifestazioa eta musika izango ditugu.

Baina, 18az harago, hilabete osoan bestelako jarduerak ere egingo ditugu: tailerrak, zineforuma, erakusketak...

Nondik dator horrelako egitaraua antolatzeko ideia?

Beti pentsatu izan dugu Amurriok behar zuela horrelako egun bat, LGTB harrotasuna ospatzeko egun eta jarduera batzuk. Urtero komentatzen genuen berdina gure koadrilan. Amurrion ez da inoiz horrelako ezer antolatu. Aurtengo hau ohiz kanpokoa eta eredugarria da, ez bakarrik Amurriorentzako, baizki eta inguruko gainerako herrientzako ere.

Barre artean sortu zen ideia, baina gutxika forma hartzen joan zen, eta antolatzeko adorea bildu genuen. Mugarri garrantzitsua izatea espero dugu.

Aurrekari esanguratsua izango da beraz, eskualdean.

Bai, erabat. Orain arte ez da horrelakorik inoiz ospatu Aiaraldean. Laudion egin izan da inoiz manifestazioren bat, baina egunak ez du inoiz hartu Amurrion aurten hartuko duen diemntsioa. Horren adierazle da, esaterako, Amurrioko Udala bera ere asko inplikatu izana antolakuntzan, aurrekari oso positiboa da.

Nolakoa izan da Udalarekin elkarlana?

Oso elkarlan oparoa izan da. Laguntza izugarria eskaini digu, Guk ere ekarpen handia egin diogu Udalari, batez ere LGTB politikei begira. Sortzen aholkularitzarekin elkarlanean formakuntzak eskaini dizkiegu Amurrioko Udaleko ordezkari politikoei zein teknikariei. Sortzen arduratu da saioak bideratzeaz eta gu gure ikuspuntu pertsonala eskaintzera bertaratu izan gara.

Nola sortu zen formakuntza horiek eskaintzeko ideia?

Udalarekin egitaraua prestatzeko elkartzen hasi ginenean, ohartu ginen bazirela gaiari lotutako gabezia ugari. Askok ez zekiten ezta LGTB siglak zer eta nolakoak ziren. Orduan sortu zen formakuntza batzuk eskaintzeko proposamena. Guztira 10 orduko formakuntza izan zen, oso emankorra, zoragarria. Gauza positibo asko atera dira bertatik, eta azpimarratzekoa da Sortzeneko kide diren Sheilak eta Zaloak egindako lana.

Udaleko berdintasun planak ez zuen aintzat hartzen LGTB kolektiboa, nahiko zaharkitua zegoen zentzu horretan. Formakuntzek aldatu beharreko aspektu ugari azaleratu dituzte. Adibidez, herrian eraso LGTBfoborik gertatuz gero ez dago horri erantzuteko protokolorik. Besteak beste, horrelako gauzak planteatu genizkien ordezkari politiko eta teknikariei: nora jo behar dute mota horretako erasoa pairatu duten pertsonek edota hauen gurasoek? Zer informazio eta baliabide eskaintzen ditu Udalak?

Pozik gaude egindako urratsekin, aldaketa igarri dugu Udalean.

Zer espektatiba dituzue ekainaren 18ko hitzorduari begira?

Ez dakigu zenbat jende etorriko den, sentsazioa dugu lagun nahikotxo elkartuko garela. Kopuruak kopuru, etortzen den oro izan dadila giro ona ekartzeko, egindako lan guztia ikusarazteko eta eguneko aldarria lau haizetara zabaltzeko.

Ekintza eta egitarau ugarik egingo dute bat herrian egun berdinean, espero dezagun osagarriak izatea eta batak bestea ez zapaltzea.

Mundu guztiari luzatu nahi diogu gure jaira bertaratzeko deia. Izan gay, trans, bisexuala, zuria, beltza, heteroa... pertsona orok du tokia aniztasunean bizitzearen harrotasuna errespetuz aldarrikatzeko. Adin guztientzako egitaraua da prestaturikoa, ez diogu inori aterik itxiko.

elkarrizketa

Zein da erdigunean jarri nahi duzuen aldarria?

Herri txikietan dagoen pluraltasuna eta aniztasuna jarri nahi ditugu erdigunean, hiriguneak ez diren lekuetan ere LGTB harrotasuna existitzen dela. Askotan hiri handiekin lotzen dira soilik LGTB eta genero identitate borrokak. Errealitatetik oso urrun dagoen ikuskera da hori, betidanik existitu izan gara marikoiak landa eremuko herri txikietan.

Harrotasun hori beti egon den arren, nekez atera izan da argitara, zokoratua izan da. Horrekin guztiarekin apurtu eta LGTB harrotasuna aldarrikatzera dator prestaturiko egitaraua, gertuko modu batean aldarrikatzera. Ikuspegi anitz batetik genero identitatea, sexualitatea eta abar guzti horiek aldarrikatu eta ospatu nahi ditugu. Izan ere, askotan, horrelako ekintzak gay komunitateari daude zuzenduak ertsiki, guk genero eta arraza perspektiba batetik heldu nahi diogu harrotasunari, inori aterik itxi gabe.

Hau da antolatzen duzuen lehenengo ekintza, zein da LGTB komunitatearen egoera Amurrion zein eskualdean?

Orain arte ez gara gure artean antolatu ekinztak egiteko. Amurrioko gaztetxean transfeminismoari buruzko hitzaldi bat eskaini zen duela hilabete batzuk, Otsemeak taldearekin batera. Horretaz gain, ekaineko egitaraua da antolatzen dugun lehenengo gauza. Elkarte bat sortzea proposatu digute, baina goizegi dela uste dugu horrelako erantzukizun bat hartzeko. Izugarri kostatu zaigu gure artean elkartu eta egitarau hau aurrera ateratzea, goazen pausoz pauso.

Amurrion LGTB kolektibo handia dago, elkar ezagutzen dugu eta, askoren artean harreman esturik ez dugun arren, burkidetasun sentimendua orokortua da. Giro ona dago orokorrean.

Beti dago baten bat kaletik txarto begiratzen zaituena, paradoxikoa bada ere pertsona gazteak nagusia nagusiak baino gehiago dira. Askoz jazapren gehiago jasotzen dugu kalean belaunaldi gazteen partetik.

Zergatik uste duzue gertatzen dela hori?

Iraultza baten erdian gaude, horrela azaltzen du genero identitatearen eta queer teoriaren inguruan asko hausnartu duen Paul B. Preciado filosofoak ere. Iraultza orok erantzun kontra-iraultzaile bat dauka, gutxiengoa izan arren, indar nabaria hartzen duena. Horrek azalduko luke zergatik belaunladi berriek oldarkor jokatzen duten LGTB kolektiboarekin, edota zergatik ari den gora egiten eskuinmuturra.

Erantzun minoritarioak dira, genero identitatearekin eta sexu askapen mugimenduarekin bizitzen ari garen paradigma aldaketa guztiaren baitan.

Iaz, 2021ean, LGTB kolektiboaren kontrako eraso ugari salatu ziren, nola bizi izan duzue egoera?

Oso gogorra da, baina aurre egin behar zaie; gaia mugitu eta salatu. Horrelako erasoak jasaten jarraituko dugu, lehen aipatutako kontra-iraultza horren ondorio direlako.

Amurrion ere jazo zen horrelako eraso bat. Inpaktu handia eragin zuen herrian, jendeak pentsatzen zuen horrelakoak ez zirela hemen gertatzen, baina gertatzen dira, ez gaude mehatxu horietaz salbuetsita.

Datu zehatzik gabe bada ere, badirudi behera egin dutela salaketek aurten. Iazko mobilizazio olatuak eragina izan du gizartean nolabait.

> ***"Izan gay, trans, bisexuala, zuria, beltza, heteroa... pertsona orok du tokia aniztasunean bizitzearen harrotasuna ospatzeko"***

> ***"Genero identitate eta sexu askapen mugimenduak eragin duten paradigma aldaketa sakonaren erantzuna da LGTB kolektiboaren aurkako erasoen gorakada"***

Ekainaren 18ko egitaraua mugarria izatea espero dute, bai Amurrion, baita Aiaraldean ere. **Aiaraldea.eus**

herriz herri

Artziniega

Uztailean bukatuko dituzte Artziniega urez hornitzeko deposituaren lanak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Maiatzaren 30ean goizean bisita instituzionala egin zuten Artziniegan, ur horniketarako zerbitzu berriaren harira. Hain zuzen, Josean Galera Ingurumen diputatua bertaratu zen, Urbide Ur Patzuergoko kideekin batera. Izan ere, entitate horrek kudeatuko du zerbitzua. Joseba Vivanco alkateak sare sozialetan adierazi duenez, depositu berriaren xehetasunak eta obren bilakaera azaldu zizkieten: "5.000 metro kubiko zituen aurrekoak, baina %30 soilik erabiltzen zenez, 1.600 metro kubiko izatera pasatuko gara". Ur depositua berritzearekin batera, inguruko urbanizazio lanak ere egingo dituzte. Horien artean daude ur biltegira iristeko sarbidea, "eta baliabide hidraulikoaren ingurua hobetzeko zuhaitzen landaketa".

Horretarako, ordea, ur mozketak gauzatu beharko dituzte berriro: "Gutxienez, bi aldiz moztu beharko dugu ura udalerri osoan, baina, aurrekoetan bezala gauez egingo dugu, eta denborarekin jakinaraziko dugu". Arabako Foru Aldundiak, Udalak eta Urbidek finkatutako hitzarmenaren fruitutzat jo du alkateak lana, Artziniegako ur horniketa sistema berritzeko xedearekin. "Orain administrazioak Angostinako lakutik depositurainoko tutu sistema zaharra berritzeko lanak geratuko zaizkigu pendiente", erantsi du gobernuburuak.

Artziniegako osasun langileak izango dira festetako pregoilariak

Artziniegako osasun langileak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Artziniegako Jai Batzordeak eman ditu dagoeneko 2022ko festetako lehen xehetasunak. Hain zuzen, pregoilariak izendatu dituzte jada: herriko osasun zentroko langileak izango dira aurtengo omenduak. "Gure ustez, hautaketak herriaren gehiengoaren onarpena izango du, Artziniegako herri osoarena ez esatearren", zehaztu dute.

Modu horretan nahi diete aitortu eta eskertu herritarren zaintzaren alde eginiko lana: "Bereziki pandemiaren unerik txarrenetan, eta ondoren, COVID-19aren aurrean, lehen lerroan egon diren pertsonak dira, bi urte hauetan guztien osasuna zaintzen". Hiru osasun langile ditu Artziniegak, eta eurak izango dira pregoilariak: Eneritz Ugarriza Lado, Marisa Fernández Diego eta Nuria Peral Lucas. "Eskerrak eman nahi dizkiegu, Artziniegako herri osoaren izenean, egindako lanagatik, inplikazioagatik eta dedikazioagatik", azpimarratu du Jai Batzordeak sare sozialetan.

Arrankudiaga-Zollo

Hezkidetza zikloa antolatu du berdintasun arloak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Arrankudiaga eta Zolloko Berdintasun Arloak ekimen berri batjarriduabian: Eskola Feminista. Urtean zehar zenbait ikastaro eta tailer antolatuko dituzte, Maider Biritxinaga zinegotziak azaldu duenez: "Herriko elkarte eta taldeei formazioa eskaini nahi zaie berdintasunaren alorretik ere". Maiatzaren 28an egin zuten lehenbiziko saioa. Hain zuzen, ipuin eta jolas ez sexistak izan zituzten hizpide. Helduentzat zein hezitzaileentzat ikastaroa eskaini zuten batetik. Bestetik, umeentzat jolasak egin zituzten, balio feministetan oinarritutako aisialdia sustatze aldera. Ekainaren 20an eta irailean egingo dituzte hurrengo jarduerak.

Herriko ikastetxean izango da helduen zita, eta frontoian, berriz, umeeei bideratutakoa. Saio guztiak doakoak eta euskaraz izango dira, eta ez da parte hartzeko izena eman beharko. "Egunerokotasunean aplika daitezkeen ekintzetarako tailerrak euren esku jartzea da asmoa, eta apurka-apurka alor ezberdinak deskubritzea eta herrian parte hartzea sustatzea" -erantsi du zinegotziak- "gurasoengandik hasita, herriko beste elkarteetako hezitzaile, irakasle eta monitoreei hezkidetza sustatzeko erarik onena irakastea da helburua eta Udalak baliabide horiek eskaini nahi ditu".

AUZOLANA
Faktorian
Ekainak 29, eguaztena, 16:00etan

Auzolanean eraiki dugu Faktoria eta auzolanean jarraituko dugu gu guztion espazioa hobetzen eta ederragotzen!
Erdu gurekin lan egitera, pintatu, lixatu, garbitu, zulatu, eraldatu... Lan txiki asko ditugu egiteko eta nola ez, musikaz eta janaz lagunduta egingo dugu! Oskorrik kantatzen zuen bezala "lana bihurtzen dugu, kantatzeko gaia"...

Izen ematea:
www.faktoria.eus

Amurrio

Iragan ekainaren 3an ikastetxean bertan mobilizatu zen hezkuntza komunitatea, eta ostegunean -ekainak 9- Juan Urrutia plazan egingo dute protesta, Eusko Jaurlaritzak 3 urteko umeen gela bat itxi nahi baitu 2022-2023 ikasturteari begira.

Hezkuntza-lerro bat ixteko erabakiaren aurka protestak Mendiko Eskolan

Protestak egiteari ekin dio Mendiko Eskolako komunitateak. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Datorren ikasturtean hezkuntza-lerro bat gutxiago eskaintzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak Amurrioko Mendiko Eskola publikoan. Hain zuzen ere, 3 urteko gela lerro bakarrean batuko dute 2022-2023 ikasturtean, 2019an jaiotako 23 ikasle bilduta guztira. "Orain arte 23 ikasle horiek bi hezkuntza-lerrotan banatuta egon dira, baina datorren ikasturtean ratioak jaitsi beharrean, guztiak elkartzea erabaki du Hezkuntza Sailak", azaldu zioten Aiaraldea Komunikabideari ostiraleko elkarretaratzean. Salatu dute ere, maila horretako ikasle bat matrikulatu ezinik geratu dela, eta, ondorioz, Zabaleko ikastetxera joan beharko dela datorren ikasturtean.

Ulergaitza deritzote 2023-2024 ikasturterako ikastetxe publiko zein itunpekoetan ratioak jaistea erabaki duen Eusko Jaurlaritzak datorren ikasturterako kontrako erabakia hartu izana. Hala azaldu dute: "Mendiko Eskola osatzen dugun komunitateko kideak haserre eta engainatuta sentitzen gara. Horrelako erabakiek haurrak hezkuntzan lehentasuna ez direla pentsatzera garamatzate".

Hezkuntza-lerroen itxierak ikasleengan eragin negatiboa izateazgain, eskolako gainerako giza-baliabideetan ere kaltea izango duela ohartarazi dute; hala nola irakasle, zuzendaritzako kide eta bestelako langileen kopuruan. Eskolako komunitateak bere kezka adierazi du, neurri gehiagoren aurrekaria izan daitekeen egoeraren aurrean: "Gure beldurra da behin gela hori itxita, lerro berririk ez irekitzea eta bitarteko gutxiago egotea betiko Mendikon".

Sinadura bilketa

Ekainaren 3an egin zuten lehenengo protesta Mendiko Eskolako sarreran Eusko Jaurlaritzaren erabakiaren aurka.Ostegun honetan, ekainak 9, Amurrioko Juan de Urrutia plazara eramango dute salaketa, 19:30ean.

Bien bitartean, sinadura bilketa ere abiatu dute, ikastetxeko maila guztietan bi hezkuntza-lerro mantentzea eskatuz.

herriz herri

Laudio

Langileek Udalari leporatzen diote zerbitzua kontratatzeko "plegu erridukuluak" egitea eta prezio merkeena eskaintzen duen enpresaren alde jotzea. Tokiko erakundeak, bere aldetik, faktura guztiak ordaindu dituela ziurtatu du.

Lan baldintzen urraketak eta soldata atzerapenak salatu dituzte Laudioko Kultur Etxeko langileek

Lan baldintzen urraketa salatu dute Kultur Etxeko langileek. **Aiaraldea.eus**

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Egoerak okerrera egin du azken urtean Laudioko Kultur Etxean. Hala salatu dute bertako langileek. Azaldu dutenez, une honetan lau ikastaro eskaintzen dituzte. Pandemia hasi baino lehen beste hiru egiten ziren, baina jada ez. Hau da, bi urtetan ia erdira murriztu da tailer kopurua.

Gastronomia Museora eta Gardeako Eskolara mugitu dituzte jarduera horiek, Lamuza parkeko obrak eta koronabirusa dela eta. Baina, tailerretako arduradunek salatu dutenez, espazio horiek ez daude egokituak, eta duten materiala egoera txarrean dago.

Lan baldintzen urraketak

Edonola ere lan baldintzengatik daude bereziki haserre. Iazko irailean sartu zen Educalia Ocio Educativo S.L. enpresa Kultur Etxeko harreraren eta tailerren kudeaketan. "2012tik 2021era Kulturbide enpresak kudeatu zuen zerbitzua", azaldu dute langileek, baina nabarmendu dute bi enpresek jabeberdinak dituztela. Gauzak hala, langile beteranoenek gogorarazi dute 10 urte daramatzatela euren lan eskubideen aldeko borrokan. "2012tik daramagu soldatak izoztuta. Horrez gain, oporretako paga extra kendu eta ohiko soldataren barruan sartu digute", azaldu dute. Antzinatasuna ere gaizki aitortua dute: "Gutako bik 2004tik daramagu tailerrak eskaintzen, baina 2012tik aurrerako antzinatasuna aitortzen zaigu soilik". Nabarmendu dutenez, beste herri batzuetan baino gutxiago kobratzen dute. "Begirale batek baino gehiago irabazten dugula esaten digute, baina gu ez gara aisialdi begirale hutsak. Ikasketak eskatzen dizkigute ikastaroak emateko".

> **"Hilabetero ditugu atzerapenak, 15 egunekoak gutxienez. Gainera, ordainketa horiek gaizki egiten dizkigute sarritan"**

Atzerapenak soldatetan

Arestian aipatutako arazo eta aldarri "historiko" horiei, beste bat batu zaie azken hilabeteetan: soldatak garaiz kobratzeko eskubidea. Salatu dutenez, urritik daramate nominetan atzerapenak izaten. "Maiatzaren 4an kobratu genuen martxoko soldata, eta gaur jaso dugu apirileko ordainsaria" (maiatzaren 24an egin zen elkarrizketa). Are larriagoa da Kultur Etxeko harreran dauden langileen kasua. "Hilabetero ditugu atzerapenak, 15 egunekoak gutxienez. Gainera, ordainketa horiek gaizki egiten dizkigute sarritan".

Beste urraketa bat ere ekarri dute mahai gainean harrera lanetan dabiltzan bi langilek. Azaldu dutenez, hainbat aste igaro dituzte kontraturik gabe lan egiten, eta talka ugari izan dituzte enpresarekin horregatik.

Gakoa, pleguetan

Langileek azpimarratu dutenez, Udalak ardurahandiadusalatuduten guztian. "Zerbitzua kontratatzeko eginiko pleguak erridikuluak dira. Eskaintza merkeenera jotzen dute, zerbitzuaren kalitatea kontuan hartu gabe". Hainbat aldiz joan dira udaletxera gaia lantzeko: "2-3 aldiz bildu gara alkatearekin, eta azken aldian esan zigun ez zela berriz gurekin batuko, eta enpresak ez digu kasurik egiten".

Aiaraldea Komunikabidea harremanetan jarri da Udalarekin gaiari buruz galdetzeko Tokiko erakundeak aipatu du du ez zuela egoeraren berri: "Orain arte, Udalak faktura guztiak ordaindu ditu. Horrez gain, kontratuak egiterako orduan bi irizpide hartzen dira kontuan: proiektuaren balorazioa eta eskaintza ekonomikoa". Zentzu horretan, udal gobernuak ziurtatu duela enpresa prezio merkeena izateagatik kontratatu.

Laudio

Laudioalde aretoak ez du zinema eskaintzarik izango aurrerantzean, espazioa eskolak emateko baliatuko dute eta

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Ekaina izango da Laudio TOP Zinema programazioa Laudioalde ikastetxeko aretoan eskainiko den azken hilabetea. Lanbide Heziketa Eskolak aretoa baliatuko du datorren ikasturtetik aurrera eskolak emateko, eta uztailean abiatuko dituzte aretoa atontzeko lanak.

Iragan asteleheneko Udal Osoko Bilkuran atera zen gaia mahaigainera, Omnia udal taldeak egindako galdera baten harira. Ander Añibarro alkateak azaldu zuenez, ikastetxeak Udalari lagatutako espazioa izanik, Laudioaldek dauka hori erabiltzeko lehentasuna, "lagapen-hitzarmenean jasota dagoen bezala". "Herriko gazteen heziketa zinema eskaintza baino garrantzitsuagoa da", adierazi zuen Añibarrok gaiaren inguruan piztutako eztabaidan. Udal Gobernu taldetik aurreratu zutenez, zinema programazioa berrezartzeko alternatiba baten bila ari dira.

Orozko

Bisitari ugari izan ditu azken astean Orozkoko baselizei buruzko Javier de Ibarra marrazkilariaren erakusketak

Testua
Txabi Alvarado bañares

Ekainaren 5era arte egon da ikusgai Orozkoko Museoan herriko ermiten luma-muturreko marrazkien erakusketa. Bizkaiko Ermiten Lagunak elkarteko kideek atondu zuten esposizioa.

Maiatzaren 20an inauguratu zuten, ekitaldi berezi bateginda. Bertan parte hartu zuten Iñaki Garcia Uribe historiazaleak eta Javier de Ibarra Zubiak, marrazkien egileak. Garcia Uriberen alaba (Udiarraga Garcia Gastaka) arduratu zen ekitaldia dinamizatzeaz, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendariak (Begoña de Ibarra) ere parte hartu zuen aurkezpenean.

Ordutik hona dozenaka lagun bertaratu dira artelanak ikustera, eta balorazio positiboa egin dute antolatzaileek.

Beirak senidetutako herrien sarera batu da Laudio, Beiraren Nazioarteko Urtean

Beirazko giltza jaso du Laudiok. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Asteleheneanegindakoekitaldian jaso zuen aitortza Laudiok. Bertan hartu zuten parte Udal Ordezkariek, Oskar Argote Vidrala enpresako salmenta arduradunak, Josu Basauri Tarabeira enpresako kudeatzaileak eta Oskar Acedo Ecovidrioko kudeatzaileak. Beiraren birziklapen gaitasuna jarri zuten balioan. Izan ere, nahi beste aldiz birziklatu daitekeen materiala da, eta horregatik nabarmendu zuten birziklatzekateak sustatzeko beharra. Araban, %87koa da material honen birziklapen tasa. Aiarako Kuadrillan ere oso birziklapen datu onak daudela azaldu zuen Ander Añibarro alkateak.

Nazio Batuen Erakundeak Beiraren Urtea izendatu du 2022. urtea. Testuinguru horretan, 'Beirak senidetutako herrien sarera' batu da Laudio

Ekimenaren sustatzaileek balioan jarri zuten Laudiok beiraren industrian duen kokapen estrategikoa. "Oso udalerri gutxi daude, Laudioren tamainakoak, non beira birziklatzeko zein ekoizteko azpiegiturak dauden", azaldu zuen Oskar Acedok. Bide beretik jo zuen Añibarrok: "Laudio udalerri erreferentea bilakatu nahi dugu beiraren industrian". Alde horretatik Foru Aldundiarekin eta Jaurlaritzarekin gauzatzen ari diren Laudio Glass Hub proiektua goraipatu zuten. "Herritar asko beirari lotuak bizi izan dira", gogorarazi zuen Añibarrok, "aitortza hau haiena ere bada".

SOUTO ALBAÑILERÍA
ELADIO SOUTO NOVO
IGELTSEROTZA OROKORRA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
Sukaldeak · Bainugelak · Barnealdeak
Margoa · Pladurra · Eskaiola
Jose Matia kalea 8, 5.B LAUDIO
Tel.: 94 672 57 27 - 629 413 652
lalosouto@gmail.com

FAKTO-RIA

URTEURREN

festa!

Erdu
#AmestekoFaktoria
ospatzera!

Adin guztietarako egitaraua!

Sarrera librea

Ekainak 25, zapatua

12:00etan
FAKTORIAREN IREKIERA

12:30ean
ESKUALDEKO HERRIEN ARTEKO OLINPIADAK

12:30ean
HAURRENTZAKO JOLAS GUNEAREN ETA GURPIL ZIRKUITUAREN IREKIERA

14:30ean
HERRI BAZKARI AGROEKOLOGIKOA
Izen-emateak: www.faktoria.eus webgunean

16:00etan
Faktoriako gereziondoaren landaketarako kalejira eta ipuin kontalaria, NEREA IGLESIASEKIN

16:30ean
Dantza-plaza, ZUZTERRAK taldearekin

18:00etan
Erromeria, BERANDUEGI taldearekin

21:00etan
DJ-ak, DANTZETAN JARRAI bikotearekin

Aiaraldea Ekintzen Faktoria
Errotari kalea 4-8, Laudio
www.faktoria.eus
688 647 942
faktoria@aiaraldea.eus

Aiara

Astelehenean mediku berria hasi zen lanean Aiaran, eta paradoxikoa badirudi ere, horrek Roberto Gonzalez doktorea sumindu du, bere ustez ez baitu eragin positiborik izango udalerriko osasun publikoan. Arrazoiak azaldu dizkio Aiaraldea Komunikabideari.

Aiarako medikua haserre eta etsituta, Osakidetzak bere pazienteen kupoa erdira murriztu duelako

Roberto Gonzalez da Aiarako familia medikua. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Roberto Gonzalez ia 20 urtez izan da Aiarako medikua bera bakarrik. Astelehenean ordea, lankide berria sartu zen udalerrian. Gonzalezek hitz onak baino ez ditu profesional berriari buruz. Bere ustez, trebakuntza izugarria dauka eta lan aparta egiteko gai izango da. Ordea, egoerak ez du alaitu. Guztiz alderantziz, Roberto Gonzalez lur jota sentitzen da Osakidetzak hartutako erabakiarekin.

Kanpotik, eta pandemian izandako lankarga aintzat hartuta, paradoxikoa dirudi mediku batek modu negatiboan baloratzea Aiaran beste doktore bat sartzea, baina Gonzalezek ikuspegi kliniko oso zorrotza dauka horri buruz: "Profesionalentzat ahultasuna ekarriko du. Kupoak txikiagoak direnez, patologia gutxiago ikusiko ditugu. Hau da, gaixotasun bat agertzen bada pertsona bakarrean 5.000 herritarren artean, litekeena da 900 paziente duen mediku batek gaitz hori behin ere ez ikustea bere bizitza profesionalean. Horrek ere eragin dezake horrelako kasu bat agertuz gero, tratatzeko gaitasunik ez izatea, oso gaixotasun zehatzak ikusiko baitutu medikuak bere ibilbidean. 'Superespezializazioa' porroteraeramatengaituenereduada, alegia." Zentzu horretan, 1.800 pazientetik 900 izatera igaroko direnez, Gonzalezek azpimarratu du euren gaitasunak ez direla aprobetxatuko eta zerbitzua ez dela hobea izango: "Bisita kopuru bera izango dut 900 edo 1.800 pazienteen kupoarekin, 100 egunero. Kontua da zer eman nahi diogun gaixoari; behar duena edo nahi duena. Hitzorduak kontsumituko dituzte, baina horrek ez du hobekuntarik ekarriko". Baliabide gehigarriak izatearen kontrakoa den galdetuta, Gonzalezek argi erantzun du ezetz. Ordea, bere aburuz, ez dira modu zentzudunean bideratzen: "Kupo txikiak egiteak ez die onurarik ekarriko Artziniegako mediku diren Mari Jose, Eneritz edo Amaiari. Eurek presio bera izango dute. Hori ez da jasangarria."

Alde pertsonala

Hala ere, dena ez da zientzia hutsa, Roberto Gonzalez triste dago aldaketak ez diolako baimendu bere pazienteak agurtzea, besteak beste. "Nik egun gaixo terminalak ditut, edo gaitz anitzak dituztenak, Olabezarren, Maroñon edota Salmantonen bizi direnak. Interesgarria litzateke, gutxienez, euren betiko medikua etxera joatea agur esatera. Edo niri ematea aukera euren medikua izateko euren azken eguna heldu arte, baina ez dakigu zer gertatuko den, ez daukat informaziorik", kontatu zion Aiaraldea Komunikabideari pasa den astean.

> **"Bisita kopuru bera izango dut 900 edo 1.800 pazienteen kupoarekin, 100 egunero. Kontua da zer eman nahi diogun gaixoari; behar duena edo nahi duen"**

Egoerak sortu dion ezinegonak hausnarketa sakona eragin dio Gonzalezi eta, momentuz, ez du baztertzen epe ertainean lanpostua uztea. Erabakia ez da erraza izango, medikuarentzat porrot pertsonal eta profesionala litzateke eta; are gehiago ikerketek adierazten dutena oinarritzat hartzen bada. "Ikerketek probatu dute mediku batek 15 urte baino gehiago ematen dituenean postu berean, heriotzak %30 murrizten direla. Ez da iritzia, ikerketek erakutsi eta neurtu dute hori", argudiatu du osasun langileak.

herriz herri

Aiaraldea

Aiarako Kuadrillaren batzarraren ostean SOS Baserriakeko kideek memoria aurkeztu zieten udal ordezkariei. Ekimen pribatuko hiltegia eraikitzea da asmoa, erakundeen babesarekin. Izan ere, instituzioek eredu hori defendatu dute, eta Laudiok orube bat prest du horretarako.

1,5 milioi euroko hiltegi proiektua aurkeztu du SOS Baserriakek, 8 edo 10 lanpostu sortuko lituzkeena

SOS Baserriak plataformak sustatuko du hiltegi berria eskualdean. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Maiatzaren 30ean ospatutako Aiarako Kuadrillaren batzarraren ondoren SOS Baserriak plataformako kideek dokumentua eman zieten udal ordezkariei, Aiaraldean hiltegi berria irekitzeko, alegia. Laudion itxitako azpiegituraren datuak aintzat hartuta, abeltzainek 1,5 milioi euroko proiektua aurkeztu dute.

Aurkeztutakoaren arabera, instalazioek 8 edo 10 lanpostu sortuko lituztekete. "Inbertsioa ez da horren handia, bestelako industrietan diru gehiago behar da lanpostuak sortzeko. Gainera, guk mugatu dugu inbertsioa animalien hilketaren bolumenera moldatuta. Halaber, bakarrik jaso ditugu lanpostu zuzenak, zeharkakoak ere egongo lirateke", adierazi dio plataformak Aiaraldea Komunikabideari.

Berez, aurrekontua ez da zehatza, egikaritze planean finkatu beharko litzateke, baina aurreko hiltegiaren jarduera ardatz izanik; hori da muga.

Kokapena: Laudio

SOS Baserriakek uste du atzojokoz kanpo harrapatu zituela ordezkari politikoak, ordea, erakundeek esandakoari erantzun dute, euren ustez: "Udalek, Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak behin eta berriro esan dute prest daudela ekimen pribatuko hiltegia babesteko eta laguntzeko. Are gehiago, Laudioko Udalak ziurtatu zuen bazuela orubea prest horretarako. Atzo Ander Añibarrori galdetu genion eta baieztatu zigun. Hortaz, gure ideia lursail hori baliatzea da".

Finantzazioa

Kokapena behin zehaztuta, baserritarrak prest daude finantzazioan parte hartzeko, baina erakunde publikoek esandakoa betetzea ere espero dute. "Aiaraldea sozioekonomikoki suspertzeko larrialdi planean 2 milioi euro bideratuko dira hiltegia egiteko eskualdean. Guk ez dugu Urduñan abiatu den proiektuaren lehia izan nahi, baizik eta osagarria. Hortaz, uste dugu aukerak daudela erakundeen laguntzarekin aurrera egiteko" nabarmendu du SOS Baserriakeko kide batek.

Azpiegitura

Berez, proiektatutako azpiegitura berrian hiru zerbitzu emango lituzkete: hiltegia, zatiketa gela eta ultraizoztuen lerro txikia. Instalazio horiekin lehen sektoreari bultzada ematea espero dute abeltzainek.

Plataformaren aburuz, "sinergia berriak pizteko aproposa da. Alde batetik, zatiketa gelak ematen du tartea abeltzainek salmenta zuzena indartzeko, baina akordioak eta hitzarmenak lor daitezke ere harakinekin edota ostalariekin. Bestalde, uste dugu bidea irekitzen duela ikastetxeetako jantokiekin, jantoki publikoekin edota catering enpresekin elkarlanean aritzeko".

Kudeaketa eredua

Plataformak sustatuko duen jarduera eredua fundazioan egongo da oinarrituta: "Fundazioan proiektua sustatu dugunok egongo gara, eta tresna horren bidez ziurtatu nahi dugu bere izaera eta helburua -hau da, eskualdeko abeltzainei zerbitzua ematea- ez aldatzea denborarekin.

Lehen sektorean maiz gertatu da ekimen pribatuak hasi direla finantzazio publikoarekin eta diru publikoa bukatzean, proiektua amaitzea. Horretaz nazkatuta gaude, diru publikoaren kontrol publikoa behar da eta gardena izan behar da. Hori da fundazioaren xedea".

Parte-hartzaileei irekirik

Fundazioa ardatza izango bada ere, SOS Baserriakek erakundeek ez ezik, bestelako sektoreek ere -harakinek edota ostalariek- proiektuarekin bat egitea nahi du. Horretarako gutxieneko ekarpen ekonomikoa eskatuko zaie: "100 edo 150 euro".

Aurkezpen publikoa

Plataformak argi dauka zergatik jakinarazi dion proiektua lehenik eta behin Aiarako Kuadrillari: "Arabako Foru Aldundiaren ostean, Kuadrilla da bote ezentro handiena eta bere eginkizuna da zerbitzu mankomunatuak bermatzea".

Hala ere, publikoki eman nahi dute egitasmoaren berri eta horretarako Laudion bi aste barru ekitaldia antolatuko dute: "Merkatari, ostalari eta abeltzain elkarteak deituko ditugu, baita Eusko Jaurlaritzako Sailburuordea eta Aldundiko Diputatua".

Aiaraldea

Erabakitzeko eskubidea aldarrikatu du Gure Eskuk Oletan egindako bilkuran

Oletako trikuharrian egin zuten ekitaldi politikoa. **Jose Mari Gutierrez Angulo**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Laugarren aldiz, erabakitzeko eskubidearen aldarri bilakatu da Oletako trikuharria. Izan ere, Gure Esku herri ekimenak bertan antolatu zuen bilkura ekainaren 5ean. Goizean goiz Amurrioko Juan Urrutia plazatik eta Etxaurreneko baselizatik abiatu ziren martxan Oletako landetaraino. Bertan, ekitaldian, herri kirolez eta bazkariaz gozatzeko aukera izan zuten.

'Piriniotako bidea'

Uztailaren 2an Gure Esku Dagok bat egingo du L'Assemblea Nacional Catalana eta Federació d'Entitats Excursionistes de Catalunya erakundeekin, eta ekintza ikusgarria gauzatuko dute, Omnium antolakundearen babesarekin. Zehazki, egun horretan, 23:00etan, Euskal Herria eta Katalunia artean dauden 300 gailur argiztatuko dituzte erabakitze eskubidea aldarrikatzeko asmoz. Izena eman beharra dago egitasmoan parte hartzeko. Horretarako, gureeskuaiaraldea@gmail.com helbidera idatzi ahal da edo hemen inskripzioa bete. Aurretik hori egitea garrantzitsua da, federatuak ez dauden lagunei asegurua egingo baitiete antolatzaileek.

Uztailaren 2an, Assemblea Nacional Catalana erakundearekin batera Piriniotako 300 gailur argiztatuko dituzte

Gauzak horrela, uztailaren 2an aiaraldearrek Adi mendira joko dute, 1.457 metroko altuera duena. Autobusak 14:00etan aterako dira Laudio, Amurrio eta Urduñatik eta hiru orduko bidaia egingo dute, Urepeletik gertu baitago tontorra eta Zubiri, Erro eta Sorogain zeharkatuko dute. Berez, gailurraren igoera 18:00etan hasiko da eta espero dute 21:00etan han egotea, dena prest izateko 23:00etarako.

Hain zuzen, ordu horretan Pirinioetako 300 gailur argiztatuko dituzte Euskal Herria eta Katalunia lotzeko. Autobusera itzultzeko beste bide bat hautatuko dute, egokiagoa gauez egiteko, Urkiagatik. Guztira, Aiaraldera 03:00etan itzultzea aurreikusi dute. Printzipioz,

Adi 'mendi berdea' izendatu dute antolatzaileek, hau da, edonork egiteko aproposa. Fisikoki prestatuagoak daudenek aukera izango dute 'mendi gorriak' igotzeko. Horretarako izena eman behar da aurretik eta antolakuntzak gidaria eskainiko die tontorrera heltzeko.

Aiarako Kuadrillak 27 kontratazio gauzatuko ditu

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aiarako Kuadrillak 27 pertsona kontratatuko ditu Europako Next Generation funtsei esker. Lanbidek sustatutako 'Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien' programaren barruan gauzatuko dira kontratazioak Laudio, Amurrio, Aiara, Okondo eta Artziniegako udalerrietan. Programak kolektibo kalteberen integrazioa du helburu. Udalerriz udalerri desberdinak izango dira kontratazioak eta hautatuko diren langile-profilak. Amurrion, esaterako, baztertzeko arriskuan dauden 10 pertsona kontratatuko dira. Laudion 45 urtetik gorako 9 pertsona kontratatuko dira. Aiaran, Okondon eta Artziniegan, azkenik, 45 urtetik gorako 8 pertsona hartuko ditu programak. Eskainiko diren lanpostuak Lanbiden iragarriko dituzte, ekaineko lehenengo hamabostaldian, eta bertan adierazitakoa jarraitu beharko da eskaerak egiteko. Kontratuek 6 hilabeteko iraupena izango dute, jardun osoaren %75ean. Gainera eskatzaileek, 80 orduko formazioa jaso beharko dute ere ere. Askotarikoak izango dira eskainiko diren 27 lanpostuetako egin beharrak.

argazki erreportajea

Euskararen eguna ospatu zuten iragan ekainaren 3an Luiaondon, “Euskaraktibatu” lemapean. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak egun osoko egitaraua prestatu zuen eta dozenaka familia elkartu ziren bertan lehen ordutik.

Euskararen alde aktibatzeko deia egin du Euskalgintza Kontseiluak

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

"Euskaraktibatzeko" deia egin zuen Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak ekainaren 3an Luiaondon ospatutako Euskararen Egunean. Abenduan zuten hitzordua jarrita, baina COVID-19ak eta eguraldi iragarpenak tarteko, atzeratu behar izan zuten.

Musika eskaintza zabalak, kirol jarduerek, antzerkiak edota herri bazkariak dozenaka familia elkartu ditu goizeko lehen ordutik.

Euskaraktibatu

Hiru alor nabarmendu nahi izan ditu Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak "Euskaraktibatu" lemaren barruan: euskaraz mintzatzeko premia, euskara eta euskal kultura kontsumitzeko beharra eta euskalgintzan aktiboki inplikatzeko aldarria.

Korrikak pizturiko ilusioaren lekukoa harturik, euskalgintza indartzen jarraitzeko beharra azpimarratu zuen Luiaondon egindako ekitaldian: "Euskalgintzan aktibatutako energiari eutsi eta bere ekinbidean jauzi bat emateko konpromisoa hartu du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak datozen urteetan".

argazki erreportajea

AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA
KOOPERATIBAREN
KUDEAKETA LANETAN
ARITUKO DEN PERTSONA
BATEN BILA DAGO

INTERESDUNEK,
IDATZI:
lanpoltsa@aiaraldea.eus
DEITU:
688 62 53 66
EDO ESKANEATU:
QR kodea

AIARALDEA EKINTZEN
FAK
TO-
RIA

erreportajea

Ezinbestekoa argitara

Ezkerretik eskumara eta goitik behera; Maite, Idoia, Yolanda, Paqui, Gloria, Eva, Etxaurren, Ana eta Olaia, zaintz sektoreko langileak. **Aiaraldea.eus**

‘Emakume izateagatik prekarizatuak’ jarudnaldiak egingo ditu SOS Aiaraldea plataformak datorren ekainaren 18an, zaintza sektoreko langileen errealitatea bertatik bertara ezagutarazteko.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

‘Emakume izateagatik prekarizatuak, bizitzak eusteko ezinbestekoak’, izenburu hori jarri dio SOS Aiaraldea plataformak datorren ekainaren 18an Amurrioko Elexondo kalean egingo dituen jardunaldiei. Zaintza lanetan diharduten sektore desberdinetako beharginak elkartu, bizi duten egoera prekarioa ikusarazi eta Aiaraldetik errealitate horri aurre egiteko neurriak mahaigaineratuko dituzte batasunean.

Aiaraldea Komunikabidea jardunaldietan parte hartuko duten hainbat emakumerekin elkartu da, euren lan eta bizi baldintzak bertatik bertara ezagutzeko asmoz.

Irune, Maite, Etxaurren, Eva, Paqui, Idoia, Gloria, Yolanda, Olaia eta Ana dira, baina beste hainbeste izan zitezkeen ere. Sektore desberdinak ordezkatzen dituzte, lanpostu desberdinak dituzte -jantokietako begiraleak, erresidentzietako langileak, etxez etxeko zaintzaileak edota dibertsitate funtzionala duten pertsonekin lan egiten dutenak- bat datoz, ordea, eginkizun bera dutela guztiek: bizitzei eustea.

Lan ezinbesteko bezain ikusezinak direla salatu dute; debaluatuak eta inolako aitortzarik jasotzen ez dutenak. Lan baldintza prekarioetan egin behar dute lan: baliabide urriekin, ratio izugarriekin edota bizitza duin batekin kontziliatzeko inolako aukerarik gabe. Hartara, zaintza sektoreko alor desberdinak azken urteetan bizi duten pribatizazio basatiak baldintza oker horien areagotzea eragiten ari dela identifikatu dute guztiek. Egoera “ulergaitza” dela azpimarratu dute, are gehiago pertsonak lanaren erdigune diren sektorean: “Lan baldintza okerrek zaintzen ditugun pertsonen bizi kalitatea kaltetzen dute zuzenean”.

Jantokien errealitatea

“Oso lan prekarioa da jantokietakoa”, azaldu dute begirale lanak egiten dituzten beharginek. “Azpikontratatutako langileak dira denak eta oso ordu gutxiko kontratuak dituzte. Gainera, gure kontratuen arabera, aldizkako finkoak dira, baldin eta etengabean behin behineko kontratuak lotuaz bizitzeko zoritxarra ez badugu “Horrek esan nahi du uda sasoian langabeziara bidaltzen gaituztela, eta ez dugula hilabete guzti horietan soldata jasotzeko eskubiderik”.

Ratio neurrigabeak ere jarri dituzte jo puntuan. Begirale bakoitzak haur kopuru handiegia zaindu behar duela azaldu dute, kalitatezko arreta baten dekrimentuan. Lehen hezkuntzako ikasleen artean, begirale bakoitzak 37 haurren ardura hartu behar du batez bestez. “Nola elikatuko ditugu 37 haur, 25 minututan”. Izan ere, jaten emateko duten denbora mugatua eta presioa da salatu duten sektoreko beste errealitate bat. “Ikastetxeek finkatzen dituzte orduak, askotan estuegiak dira, eta horrek eragin zuzena du haurren heziketan”.

Azken aldarrikapen bat ere mahaigaineratu dute horri lotuta. Jantokietako begiraleak hezkuntza komunitateko kide bezala aitortzea eskatu dute. “Interkomunikazio ona behar dugu zuzendaritzako kide, guraso eta irakasleekin”. Ezinbesteko jo dute hori zerbitzu egokia eskiantzeko.

erreportajea

Erresidentziak

Pribatu zein publikoetan erabiltzaileen perfila aldatu egin dela ohartarazi dute: "Fisikoki eta psikologikoki deterioratuagoak daude erabiltzaileak, eta horrek dependienteagoak egiten ditu". Azken urteetako neurriak, ordea, ez doaz errealitate horri erantzutera inondik inora. Plantillak ez dira behar beste handitu eta behin behinekotasuna "izugarria" dela adierazi dute bertako langileek.

Sektore pribatuan egoera are okerragoa dela azaldu dute, ratio neurrigabeek adinduen arreta izugarri kaltetu dutela: "Gainezka gaude, ez dugu kalitatezko arretarik eskaintzeko tarterik. Funtsean, kalitate humano gehiago eta aurrekontu kalkulu gutxiago eskatzen dugu".

Hori gutxi balitz, Araban ez dago bertako lan baldintzak bermatzen dituen lan-hitzarmenik, langileek soldata minimoa kobratzen dute urtean beste lurralde batzuetan baino lanordu gehiago sartzen duten arren.

Lan baldintzen debaluazioa

"Lan baldintza okerrek zaintzen ditugun pertsonen bizi kalitatea kaltetzen dute zuzenean"

izan da, besteak beste, Orozkoko Mercedarias egoitzako langileak grebara bultzatu dituena. Dibertsitate funtzionala duten pertsonei arreta eskaintzen diete bertan, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzu bat den arren pribatizazioak ere kolpatu ditu, eta grebara jotzea erabaki dute. Izan ere, urte gutxian, lanordu gehiago lan egitera eta KPIaren igoera aintzat hartzen ez duen soldata baxuagoa jasotzera igaro dira: "Diputazioak diru publikoa jartzen du gurea bezalako zentroetan, baina ez dute horren gaineko inolako kontrolik".

Etxez etxeko langileak

Bakartuak, ikusezinak eta baliabiderik gabe, horrela ikusten dute beren burua etxez etxeko arreta zerbitzua eskaintzen duten langileek. "Guk zuzenean jotzen dugu artatu behar ditugunen etxebizitzetara, eta normalean ez dugu gure lana gauzatu ahal izateko tresneriarik: garabiak, ohe etzangarriak... Gainera, asko dira guk geuk asumitzen

"Gure problematika iksuarazi behar dugu, eta arazo kolektiboa dela ulertarazi"

ditugun gastuak; kilometrajeak, esaterako, urte asko darama berrikusia izan gabe". Enpresa batetik bestera subrogatzen dituzte etengabe, urtean behin azaldu dutenez. Horri guztiari bizi-proiektu bat duintasunez garatzeko ezintasuna ere azpimarratu dute: "12 orduko disponiblitatea exijitzen zaigu, nola kontziliatuko dugu baldintza horiekin".

Batasuna ardatz

"Ezjakintasun asko dago zaintza sektoreko langileekin bizi dugun errealitatearekiko", kexu dira beharginak. Sektore feminizatuak erabat ikusezin eta isolaturik daudela diote: "Ez dago batasun eta borroka tradiziorik, ez gara urte luzez lan-hitzarmen kolektiboak borrokatu dituzten produkzio-sektoreak bezalakoak. Hori aldatu beharra dago".

Aitortza horren bidean urratsa egingo dute datorren ekainaren 18an Amurrion: "Gure problematika ikusarazi behar dugu, eta arazo kolektiboa dela ulertarazi".

Sekotreko langileek komunean jarriko dituzte euren problematikak datorren ekainaren 18an. **Aiaraldea.eus**

AIARALDEA GAUR

agenda

2022/06/08
2022/06/22

Ekainak 11: Amurrioko Gazte Asanbladaren
15. urteurren jaia

Ekintzaz betetako asteburuak izango dira ekainekoak Aiaraldean. Pandemiaren ondorioz bertan behera geratutako ekintza asko itzuliko dira egutegira. Horietako bat da Amurrioko Gazte Asanbladaren jaia, 2019tik egiten ez zena. Eragile horrek 15 urte bete ditu aurten, eta egun osoko egitaraua egingo dute datorren larunbatean -ekainak 11- hori ospatzeko. Gazte Asanbladak hainbat proiektu garatu ditu azken hilabeteetan San Jose auzoan dagoen gaztetxean, eta bide horretan beste urrats bat emateko baliatu nahi dute eguna. Kalejira musikatuarekin hasiko dute eguna, 13:00etan. Bi ordu beranduago egingo dute bazkaria. Tiketak Txokogorri eta Atxubin daude salgai, eta gazte asanbladaren Instagram kontutik ere eskatu ahalko dira. Bingo musikatua egingo dute bazkalostean. Gaztejolasekin eta Elektrotxusmaren kalejirarekin beteko dute arratsaldea, iluntzean kontzertuei bide emateko.

Musika eskaintza zabala

Gauean musika izango da protagonista nagusia. Atxurre, Maixa Ta Malakias eta Beranduegi erromeria igoko dira Guk eskulturaren aurrean kokatutako eszenatokira, Street Ligth estudioko eskualdeko hainbat rap-kantariaekin batera: Loza, MRT, Kortazar, Jako JK, Polli eta Landa.

MUSIKA

06.09 Osteguna
19:00 LAUDIO
IRREAL, TENSÖ, RECLUSION ETA CUERO
Orbeko Etxea

06.11 Larunbata
22:00 AMURRIO
ATXURRE; MAIXA ETA MALAKIAS, LOZA, MRT, KORTAZAR, POLLI, LANDA JAKO JK ETA BERANDUEGI ERROMERIA
Amurrioko Gazte Asanbladaren 15. urteurrena
Amurrioko parkea

06.18 Larunbata
20:00 LAUDIO
TRIOKA, NAFRA, ADDENDA, ROTURA ETA SHÖCK
Orbeko Etxea

06.18 Larunbata
21:00 AMURRIO
GWA YA, CHIKI LORA, CUATRO BANCOS ETA AIARALDEKO SOINU SISTEMA
Tubacexeko langileen eskertza jaialdia
Matias Landaburu

06.18 Larunbata
23:00 LAUDIO
ZOPILOTES TXIRRIAOS
Alberto Acero plaza

KIROL JARDUERAK

06.10 Ostirala
10:00 LAUDIO
GEUREA LIGA
ASASAM elkarteak antolatuta
Granja kiroldegia

06.10 Ostirala
17:00 URDUÑA
PARAPENTE IKASTAROA
Urdu Hegan taldeak eta Berbalagun ekimenak antolatuta
Frontoia

06.10 Ostirala
18:00 URDUÑA
BOLO JAURTIKETA
13 ORDUAK
Lendoñobeitiko bolatokia

06.11 Larunbata
10:00 LAUDIO
EUSKADIKO EMAKUMEZKO XAKE TXAPELKETA
Kasinoa

06.11 Larunbata
10:30 LAUDIO

06.17 Ostirala
19:00 LAUDIO
ITXARKUNDIA DANTZA TALDEAREN IKSUKIZUNA
Alberto Acero plaza

06.17 Ostirala
19:30 LAUDIO
VII. JEDI GALAKTIKOA
Star Wars sagako jarraitzaileek egindako filmen proiekzioa
Orbeko Etxea

06.19 Igandea
18:30 URDUÑA
BISITA ANTZEZTUAK
Artziniegako historiako mugarriak eta ondarea lantzeko
Toñin Luengas frontoia

HITZALDIAK ETA TAILERRAK

06.08 Asteazkena
17:00 URDUÑA
ENPATIZAZIO TAILERRA
Gurasolagun elkarteak antolatuta
Herri Eskola

06.08 Asteazkena
18:30 LAUDIO
SOS AIARALDEA, IKASTURTE AMAIERAKO ASANBLADA
Herriko plaza

06.10 Ostirala
17:00 AMURRIO
GAZTE LGTB+ ETA HARRO!
16 eta 25 urte bitarteko gazteei zuzendutako tailerra
Kultur Etxea

06.10 Ostirala
17:00 AMURRIO
'YO, DANIEL BLAKE'
Amurrioko Nagusien Kontseiluak antolatuta
Nagusi Etxea

06.10 Ostirala
18:30 URDUÑA
'URDUÑA HIRIBILDUA IZAN BAINO LEHEN'
Aitzol Altunaren hitzaldia
Orduña Hiria Museoa

06.18 Larunbata
18:30 URDUÑA
'EMAKUME IZATEAGATIK PREKARIZATUAK'
SOS Aiaraldea platafomrak antolatuta
Elexondo pasealekua

06.20 Astelehena
11:00 AIARA
INTERNET BIDEZKO IZAPIDEAK OSAKIDETZAN
Aiarako KZGunea

Hockeyaz gozatzeko egunak Gardean

Hockey entrenamendu saio irekiekin agurtzen ari da denboraldia Ganbegi 6-2 hockey taldea. Iragan astean entrenamendu saio irekia egin ostean, 'Hockey Eguna' ospatuko dute larunbatean -ekainak 11-. Ekainaren 18an, aldiz, gurasoen artean antolatutako ligaren azken norgehiagoka egingo dute, eta umeentzako beste entrenamendu ireki bat.

Geurea areto-futbol ligaren finala jokatuko dute ekainaren 10ean
Buru osasunaren alde

Areto-futboleko Geurea Ligak Laudion agurtuko du denboraldia, datorren ekainaren 10ean. Buru Osasuna jorratzen duten elkarte eta eragileen arteko futbol liga da Geurea, eta Atheltic Fundazioarekin elkarlanean, hamar futbol taldek parte hartzen dute bertan. ASASAM elkarteak du finala antolatzeko ardura, baina elkarte gehiago dira ligaren atzean aritzen direnak; hala nola, Osakidetzaren Buru Osasun Sarea, Argia Fundazioa, Eragintza Fundazioa, AVIFES elkartea eta Arrasateko San Juan de Dios ospitalea. Ekainaren 10ean 10:00etan hasiko dituzte jarduerak Laudioko La Granja kiroldegian. Taldeei harrera egin ostean, erakusketa partida jokatuko du Geurea Ligako selekzioak La Milagrosa ikastetxeko ikasleen aurka. Ligako finala, aldiz, 11:30ean jokatuko da, eta behin sailkapena ebatzita, sari banaketarekin itxiko dute egitaraua. Egun guztian zehar, Irati Morales abeslariak kantuz girotuko du kiroldegia.

Eskualdeari eskerrak emateko jaia egingo dute Tubacexeko langileek

Tubacexetik kaleratuak izan ziren langile talde batek, jaialdia antolatu du datorren ekainaren 18an Amurrion, 8 hilabetez luzatu zen greba mugagabean eskualdeak erakutsitako elkartasuna eskertzeko. 500 lagunentzako bazkaria prestatuko dute, eta gonbidapenak doan jaso daitezke Amurrioko eta Laudioko Kultur Etxeetan, ekainaren 11ra arte.

Herri bazkaria bakarrik ez, bestelako ekintzak ere egingo dituzte ekainaren 18ko jaialdian. Haurrentzako jolasak edota Cuatro Bancos, Gea Ya, Chiki Lora eta Aiaraldeko Soinu Sistemaren kontzertuak esaterako.

13 ordu jarraian bola-jokoan Lendoñon

Tertangako Eleixalde Bolo Elkarteak eta Lendoñobeitiko Administrazio Batzarrak bola-joko asteburua antolatu dute Lendoñobeitiko bolatokian. Ekainaren 10ean 18:00etatik 20:00etara egongo dira jokoan, eta ekainaren 11n 9:00etatik 20:00etara, 13 ordu guztira. Larunbatean, gainera, herri bazkaria egingo dute Sagartza Txokoan, 14:30ean.

IX. HOCKEY EGUNA
Hockey partidak, masterclass-a eta luntxa
Gardeako kirolgunea

06.11 Larunbata
17:00 ARTZINIEGA
UMEEN ETA HELDUEN III. ESPARTAN LASTERKETA
Laia Eskolak antolatuta
Axpe auzunea

06.11 Larunbata
17:30 LAUDIO
REAL SOCIEDAD - SD EIBAR
Emakumezkoen Euskal Kopa
Ellakuriko kirolgunea

06.12 Igandea
08:30 AMURRIO
GARRASTATXU- AMEDIANO IBILALDIA
Euskal Preso Politikoen aldeko martxa
Garrastatxu

06.12 Igandea
09:00 AMURRIO
LA KARPY
Zikloturistentzako ibilaldia
Artziniegako Museoa

06.18 Larunbata
06:00 LAUDIO
FONTUN ETA VALPORQUERO ARROILA JAITSIERA
Mendiko Lagunak antolatuta
Telefonika eraikina

06.18 Larunbata
09:30 AMURRIO
II. TITO MEMORIALA
Futbol 7 torneoa
Refor kirolgunea

06.19 Igandean
09:30 LAUDIO
HOCKEY ENTRENAMENDU SAIO IREKIAK
Gardeako kirolgunea

IKUSKIZUNAK

06.10 Ostirala
20:00 LAUDIO
'EL TXOU DE PATXI'
Gorka Aginagalderen bakarrizketa
Alberto Acero plaza

06.10 Ostirala
20:00 AMURRIO
'HIRU HITZETAN'
Dantza ikuskizuna
Amurrioko Parkea

06.17 Ostirala
17:00 LAUDIO
XABOI PONPAK
Haurrentzako ikuskizuna
Lamuza Parkea

BESTELAKO JARDUERAK

06.10 Ostirala
20:00 AMURRIO
XXIII. AHUNTZ EGUNA
Solasaldia eta afaria
Garrastatxuko Txosna

06.11 Larunbata
11:30 LAUDIO
LAUDIO IKASTOLAKO 50. URTEMUGA JAIA ETA BAZKARIA
Laudio Ikastola

06.11 Larunbata
13:00 AMURRIO
AMURRIOKO GAZTE ASANBLADAREN 15. URTEURRENA
Kalejira, gazte bazkaria eta jolasak
Amurrioko Parkea

06.11 Larunbata
18:00 URDUÑA
ZEZENKETA
Ivan Abasolo eta Daniel Ollora toreatzaileekin
Zezen plaza

06.12 Igandea
08:15 AMURRIO
XXIII. AHUNTZ EGUNA
Euskal Herriko Ahuntz Txapelketa eta Ahuntz Azienden Feria
Garrastatxu

06.18 Larunbata
10:00 LAUDIO
LA MILAGROSA IKASTETXEKO MENDEURRENA
Familien Jaia
La Milagrosa Ikastetxea

06.18 Larunbata
13:30 AMURRIO
AMURRION HARRO! JAIA
Bazkaria, antzerkia, Drag Queen Show-a eta manifestazioa
Amurrioko Parkea

06.18 Larunbata
14:30 AMURRIO
ESKERRIKASKO AIARALDEA!
Tubacexeko langileek antolatutako eskertza bazkaria
Matias Landaburu

INFO +
aiaraldea.eus

elkarrizketa

zien
kar
oz

MARIA LOPEZ VELLOSO (Barakaldo, 1979) ZUZENBIDE IRAKASLEA DA DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN. ERAKUNDE HORRETAN BERDINTASUN PLANAK SUSTATZEKO PROIEKTU BATEAN MURGILDUTA IGARO DITU AZKEN LAU URTEAK, EUROPAR BATASUNEKO PROGRAMA BATEN BIDEZ. NOBEL RUN JOKOA IZAN DA PROZESUAN ZEHAR GARATU DUTEN EGITASMOETAKO BAT.

Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Nobel Run jokoa sortu duzue, baina gauza asko daude horren atzean, ez?

Bai. Joko hau Gearing Roles proiektuaren barruan sortu da. Europar Batasunaren proiektu bat da, helburu duena unibertsitateetan berdintasun planak ezartzea. Gure helburua egitasmoaren barruan zen zientziaren barruan dauden rolak aldatzea. Azken finean, emakumeok rol batzuk hartzen ditugu beti akademian zein akdemiatik kanpo. 'Etxeko lana', adibidez, gure gain erortzen da: emakumeak gara beti ikasleengana hurbiltzen garenak, tutore lanetan aritzen garenak... zaintzari lotutako rolak egokitzen dizkigute. Joera dago baita ere zientzia "gogorretan" (ingeniaritzak, adibidez) gizonak soilik egoteko, eta gizarte zientzietan emakumeak. Gauzak hala, rol horiek aldatzea genuen helburu, beste erreferentzia batzuk sortzeko eta, modu horretan, joera aldatzeko.

Nazioarteko 10 erakunderen artean garatu dugu proiektua. Horietako 6 unibertsitateak dira. Beste laurek, aldiz, aholkuak eta babesa ematen dituzte: unibertsitate bat, ahokularitza erakunde bat, Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioa eta proiektuaren komunikazioaz arduratzen den beste erakunde bat.

Erakunde bakoitzak ekimen bat sortu du proiektua jendarteratzeko. Deuston zer egin pentsatzen geundela, Lorena Fernandez niregana etorri zen. Unibertsitateko indetitate digitalaren zuzendaria da, eta berak proposatu zidan jokoa sortzea. Berak eta Pablo Garaizarrek bazuten esperientzia jokoak garatzen, honakoa ez baita Pablok garatu duen gisa honetako lehen egitasmoa, baina bai generoaren alorrera lotuta egin duen lehena. Nik berehala esan nien baietz, oso ideia polita iruditu zitzaidalako.

Jokoaren helburua zen islatzea zer nolako zailtasunak ditugun emakume zientzialariok gure karrera egiterako orduan. Horretarako, akademiko ospetsu batzuen istorioak hartu genituen. Jokoaren dossierrean agertzen dira euren istorioak. Informazio horretan oinarrituta sortu ditugu jokoaren kartak. Nobela irabaztea da jokalarien helburua, baina dituzun karten arabera sariak jaso edo puntuak galdu ditzakezu.

Ez da joko konplexua. Akademikoa ez bazara baliteke ez jakitea zer den 'post-doc' bat edo 'senior reseracher' bat. Baina oso ondo azalduta dago argibideetan.

elkarrizketa

“Emakume ntzialariok gure rrera egiterako orduan ditugun ztopoak islatzea da jokoaren helburua”

Jokoaren helburua orduan, zein da, emakume zientzilarien papera aldarrikatzea edo bistaratzea zer nolako trabak dituzten emakumeek esparru horretan?

Bi gauzak eta, horrez gain, rolak aldatzen saiatu gara. Badaude zaintzari lotutako kartak. Normalean emakumeek hartzen dituzte zaintzari lotutako bajak, baina guk gizon bat jarri dugu karta horretan, aldarrikatzeko gizonek ere hartu ditzaketela bajak etxeko lan horiek egiteko.

Intersekzionalitatea ere landu dugu. Jatorri guztietako pertsonak barnebiltzen saiatu gara. Asko pentsatu ditugu jokoaren alor guztiak.

Zein izan da zure egitekoa proiektuan?

Ni proiektu orokorraren kudeatzailea nintzen, Deustun zein nazioartean, eta dirua bilatu nuen jokoa finantzatzeko. Baina, lana, berez, Pablo eta Lorenak egin dute. Iñigo Maestrok, aldiz, marrazkiak eta diseinuak egin ditu. Kudekatea ez da erraza izan. Ez genuen diru askorik proiektua garatzeko. Horregatik, crowfunding bat egin genuen dirua biltzeko, eta arrakasta itzela izan zuen. Horregatik erabaki zuen Tranjis Gamesek jokoa erostea. Enpresa horrek banaketa zabala egin du, eta iragan astean Espainiako Estatuko hirugarren mahai jokorik salduena izan zen.

Hori oso garrantzitsua izan da guretzat. Unibertsitatetik askotan zaila suertatzen zaigu publiko orokorrarekin harremantzea, eta jokoa sortzea oso aproposa izan da horretarako. Lau urtetik gorakoentzako da, gainera. Nik bi seme-alaba ditut, eta beti esaten didate ez dutela ulertzen zertan egiten dudan lan. Joko honek balio du hori modu errazean azaltzeko, eta baita emakumeok gure bidean ditugun zailtasunak bistaratzeko ere, ez baikara lehenak izan oztopoak izaten eta, zoritxarrez ez gara azkenak izango.

Aipatu duzunez, proiektu globalago baten parte da jokoa. Zein fasetan dago egitasmo orokorra?

Amaitzear dago. Lau urtez aritu gara lanean eta aurten amaituko dugu. Oso proiektu berezi eta garrantzitsua izan da guretzat. Deustu jesuiten unibertsitatea da, eta genero gaiak lantzea ez da erraza horrelako testuinguruetan. Berdintasun planak ezartzea izan da helburu nagusia.

> **“Emakumeak gara beti ikasleengana hurbiltzen garenak, tutore lanetan aritzen garenak... zaintzari lotutako rolak egokitzen dizkigute”**

Zer nolako prozesua izan da?

Oso polita eta oso zaila. Sekulako lana egin genuen proiektua aurrera atera zedin. Europa mailako egitasmoak ez dira lortzen bat ere errazak. Gu lau aldiz saiatu ginen. Baina gure arteko harremana sendotu egin da proiektuari esker. 15-20 kide inguruk osatzen dugu Deustuko lan-taldea, eta guztiak ez gara emakumeak. Badaude gizonak, eta hori ere oso garrantzitsua da.

Talde-motore horrek bultzatu du prozesua, baina egon da talde zabalago bat ere. Unibertsitateko profil guztiak gonbidatu genituen bertan parte hartzera: errektorea, errektoreordeak, dekanoak, administrariak, ikasleak, irakasleak... talde zabal horretan egondako pertsonek ere nabaritu dute prozesuak izandako eragina. Babes garrantzitsua izan da guretzat, eta asko aurreratzea ahalbidetu digu.

Oztopoekin ere egin dugu topo, noski. Oso nabariak dira alor honetan dauden erresistentziak. Gure helburuen artean zegoen, adibidez, lidergo postuetan emakumeak sartzea, eta horretan oso gutxi aurreratu dugu. Zuzendari batzordean eta errektorearen taldean emakume gutxi daude oraindik ere, aurrerapausoak eman diren arren.

Bestelako oztopoak ere izan ditugu. Batzutan pentsatzen da “feminismo instituzionala” ez dela benetako feminismoa. Kanpoan daudenak pentsatzen dute gure lana erraza dela eta, zentzu batean, moldatu garela. Baina, gure ustez, egiten ari garena barrutik gauzak aldatzea da, edo horretan saiatzen gara behintzat. Hori oso etsigarria izan da askotan, kanpotik sumatzen delako oso gutxi egiten ari garela, eta goitik ikusten delako gu ere bultatzen ari garela. ‘Sandwich’ batean egongo bagina bezala sentitu gara batzuetan. Baina orokorrean uste dut oso pozik gaudela eta Europar Batzordeak gure lana aitortu duela. Gure proiektua aitortu zuten iaz, eta hor eragin handia izan du jokoa egin izanak. Europar batzordea oso pozik dago proiektu horrekin.

Askotan entzuten dugu berdintasunari lotutako kontu guztiak konponduta daudela, baina ikusten dugu ez dela horrela. Joko batekin askoz errazago da hori jendarteratzen.

Irakurri elkarrizketa osorik Aiaraldea.eus atarian

kultura

Irraileko lehenengo asteburuan ospatuko dute UrduFolk jaialdiaren 10. edizioa. Honezkero aurreratu dituzte oholtzan arituko diren musika taldeak, eta emakumez osatutako banden aldeko apustu argia egin dute: Judith Nedderman, Las Migas, Kuttune eta Las Caramba.

Emakumeek hartuko dute Urdu Folk jaialdiaren 10. urteurreneko oholtza

Material ekologikoz egindako arropa atera dute Jaialdia promozionatzeko. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Urte berezia izango da aurtengoa UrduFolk musika jaialdiarentzat; pandemia osteko lehen edizioa ez ezik, 10. urteurrena ere ospatuko duelako. Urte luze hauetan folk musikaren erreferente bilakatu da irraileko lehenengo asteburuan antolatzen den jaialdia, eta prestatzen ari diren egitarauak orain arte urratutako bide arrakastatsuan sakontzea du helburu.

Emakumeak lehen lerroan

Alor guztietan izango da berezia aurtengo edizioa. Izan ere, antolatzaileek apustu argia egin dute: emakumez osatutako edo emakumeek lideratutako bandek joko dute soilik. Oraindik kartela publiko egin ez duten arren, honezkero aurreratu dituzte Foru Plazako oholtza zapalduko duten taldeak, eta munduko musikak izango dira ardatza: Irailaren 2an Judith Nedderman eta Las Migas arituko dira; irailaren 3an, aldiz, Nerea Quincoces artziniegarraren Kuttune eta Las Caramba taldeek girotuko dute iluntzea.

Sona handiko proposamenak dira guztiak. Las Migas taldea, esaterako, Grammy Latino saria irabazteko hautagaien artean egon zen, eta Euskal Herrira egindako azken bisitetan sarrera guztiak saldu dituzte 3.000 lagunentzako edukiera duen Euskalduna Jauregian. Urduñako aizangodainguruotan irekian joko duten lehendabiziko aldia.

Las Caramba taldea, aldiz, Europako bira batean dago murgilduta oraintxe. katalunian bizi diren emakume katalandar, kubatar eta venezolandarrek osatzen dute taldea, eta mezu feminista oso markatua uztartzen dute doinu latino dantzagarriekin.

Ekintza gehiago

Udaleko euskara sailarekin elkarlanean hiru ekintza osagarri antolatu dituzte ere: Iñaki Plazak eskainiko duen kontzertu didaktikoa, Txistuman familientzako ikuskizuna eta Koldo Ulibarrik eskainiko duen Urduñako euskal dantza eta musika ondarearen inguruko hitzaldia. Santa Zezilia bandak, gainera, euskal folkean oinarritutako kontzertu berezia eskainiko du Koroatze gaien egitarauaren barruan. Azkenik, aurreko urteetan bezala, Asturiaseko El Trasno gaitero bandak alaituko ditu Urduñako kaleak.

Zero zabor jaialdia

Zero zabor jaialdia antolatzea da aurtengo edizioko beste erronketako bat. Horretarako, material berrerabilgarri eta biodegradagarria erabiltzeaz gain, jaialdiak berak sortzen duen CO_2 aztarna neurtuko dute, Udaleko ingurumen-teknikariekin elkarlanean: Horren arabera, zuhaitz landaketa egingo dute jaialdiaren ostean.

Zero kilometroko produktuak baliatzea ere izango da beste ardatzetako bat.

Promozioa

Hurrengo asteetan emango dituzte jaialdiaren inguruko xehetasun gehiago. Bien bitartean promozioan murgildutadaudeantolatzaileak. Hilabete hasierako azoka agroekologikoan kontzertuak antolatzeari ekin diote, giroa berotzeko asmoz.

Aurten, gainera, jaialdiko *merchandising*-a ere kaleratu dute: kotoi ekologikoarekin egindako kamisetak, sudaderak eta poltsoak.

Turismoa sustatuz

Folk musikaren zirkuitu kulturaletan bere lekua aurkitu duen jaialdia da Urdu Folk. Hori dela, Urduñako aisaldi eskaintza zabalarekin zubilanak egiteko lanabes bilakatu nahi dute irraileko jaialdia, ekintza eskaintza anitza prestatuz.

babestutako edukia

1967an sortutako Idiomas Fundazioak hizkuntza-eskola berria irekiko du Laudioko Herriko Plazan. Hezkuntza eskaintza zabala aurkeztu du, eta matrikulazio epea ekainaren 24ra arte egongo da zabalik Internet bidez. 50 urteko esperientzia du Fundazioak hizkuntzen ezagutza transmititzen.

Ingelesa, alemana eta frantsesa ikasteko aukera eskainiko du Idiomas Fundazioak Laudion

Laudioko Herriko Plazan irekiko dute hizkuntza-eskola berria. **Aiaraldea.eus**

Idiomas Vital Fundazioak hizkuntza-eskola berriaren ateak irekiko ditu datorren ikasturtean Laudioko Herriko plazan bertan. Orain arte Arabako Ogasunaren bulegoak izandakoak hizkuntza eskaintza zabala izango du herritarren eskura aurrerantzean.

Matrikulazioa zabalik

Honezkero zabalik dago hezkuntza zentro berrian matrikulatzeko epea. Interesdunek ekainaren 24ra arte izango dute hori egiteko aukera. Internet bidez dago matriulatzeko aukera, eta 945257666 telefono zenbakia ere jarri dute herritarren eskura, edozein zalantza argitzeko. Astelehenetik ostiralera 17:30etatik 21:00etara eskainiko dute arreta.

Hezkuntza-eskaintza

Hainbat hizkuntza ikasteko aukera eskainiko du Idiomas Fundazioaren Laudioko hizkuntza eskola berriak. Ingelesak, frantsesak eta alemanak osatzen dute haur zein helduei zuzendutako hizkuntza eskaintza. Astero hiru eskola ordu eskainiko dituzte, eta matrikularen prezioa 600 eurokoa izango da, eta familia ugarietako kideek %15eko hobaria eskuratu ahalko dute.

2022-2023 ikasturteko matrikulazio epea ekainaren 24ra arte egongo da zabalik

Gainera online-prestakuntza plataforma bat ere prestatu dute, aurrez aurreko eskolen osagarri. Horrek mota guztietako prestakuntza-dokumentazio gehigarria eta ikaskuntza hobetzeko ariketa praktiko ugari izatea ahalbidetuko die ikasleei.

Idiomas Fundazioa

1967an sortu zen Vital Kutxaren Idiomas Fundazioak 50 urte baino gehiago daramatza Gasteizen ingelesa eta bestelako hizkuntzak irakasten, titulazio ofiziala, gaitasuna eta eskarmentua duten irakasleekin. "Bikaintasun akademikoa"dute balio nagusi, eta hori izan dute haur zein helduen hizkuntza heziketa bideratzeko.

50 urteren ostean, Laudion ere egongo Idiomas Fundazioarekin da hizkuntza desberdinak ikasteko aukera.

Idiomas
FUNDACIÓN Vital FUNDAZIOA

www.fundacionidiomas.eus/matricula-llodio/

kultura

“Olerki ilunak idaztea gustatzen zait, alaiak gatzik gabekoak iruditzen zaizkit”

SASHEL CALDERON CAMACHOk (Laudio, 1998) LEHEN SARIA ESKURATU DU POETAS EN MAYO NAZIOARTEKO JAIALDIKO POESIA PAPEREZKO AHOZAPI BATEAN LEHIAKETAN. IAZ ARGITARATU ZUEN GAZTEAK BERE LEHEN OLERKI LIBURUA (*DONDE LAS MARIPOSAS VAN A MORIR*) ETA BIGARRENA PRESTATZEN ARI DA UNEOTAN.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Iragan astean jaso zenuen saria Poetas en Mayo nazioarteko jaialdian. Espero zenuen?

Saria jaso nuenean ia ez nintzen gogoratzen parte hartu nuela. Besterik gabe eman nuen izena. Poesia Paperezko Ahozapi batean zen lehiaketaren izena. Olerki bat idatzi behar genuen mukizapi batean. Laudioko Iluntze tabernara joan nintzen eta bertan idaztea erabaki nuen, bertako ahozapiak gustatu egin zitzaizkidalako. Poema osatu eta argazkia egin nion, lehiaketara bidaltzeko. Irabazi nuela esan zidatenean ez nuen sinesten. Pentsatu nuen agian ez zuela jende askok izena eman eta horregatik irabazi nuela. Baina saria jasotzera joan nintzenean parte hartzaile guztiekin egin nuen topo eta pentsatu nuen: “Jo, ba agian ona naiz!”.

Zure lehenengo lehiaketa izan da?

Bai, lehenengoa.

Baina ez da poesiaren munduan egin duzun lehenbiziko gauza, ez? Iaz aurkeztu zenuen zure lehen liburua.

Niri txikitatik gustatu izan zait idaztea eta irakurtzea. Banuen koadernotxo bat, eta bertan idazten nituen gauzak, olerkiak, besteak beste. Egun batean pentsatu nuen bertan idatzitako poema guztiak ordenagailura pasatzea, nola geratzen ziren ikusteko. Dezente nituela ikusi nuen.

Orduan pentsatu nuen testuak polit jartzea eta argitaratzen saiatzea. Sei argitaletxetara bidali nuen eta guztiek esan zidaten baietz. Bat aukeratu nuen eta liburua plazaratu nuen.

Hainbat garaitako olerkiak bildu dituzu, beraz.

Bai. Hasieran txikitan idatzitakoak agertzen dira, eta bilakaera ikusi daiteke gero. Beste liburu bat idazten ari naiz eta hor ere ikusiko da nire bilakaera.

Nolakoa izan da bilakaera hori? Zertan nabaritu daiteke?

Idazteko forman. Nire lehen olerkiak “umeagoak” dira. Gaiei dagokionez, olerki ilunak egitea gustatzen zait, alaiak gatzik gabekoak iruditzen zaizkidalako. Bi estiloetako olerkiak gustatzen zaizkit, baina, idazterako orduan, olerki ilunagoak egitea dut gogoko. Gai ilun eta alaiak tartekatzen ditut beti.

Zure bizipen eta sentimenduetan oinarritutako olerkiak dira zureak edo, kontrara, fikzioa dira?

Badute zerbait bi aldeetatik. Batzuetan oso alai nago eta oso gauza txar bat idatzi dezaket. Nire izaera da. Egile ilunak ditut gustuko. Nire lagunek sarritan galdetzen didate ea zergatik dudan horren idazkera iluna. Nire amak edota nire bikoteak galdetzen didate ea horrela sentitzen naizen benetan, eta nik erantzun behar izaten diet ezetz, horrela idaztea gustatzen zaidala.

Orduan, idazten duzunak ez du zerikusirik zure egoera pertsonalarekin.

Agian batzuetan bai, baina gehienetan ez. Pozik nagoenean baliteke gauza alairen bat idaztea, baina ohikoan gauza batek ez du bestearekin zerikusirik.

Poetas en Mayo lehiaketara ere olerki ilun bat bidali zenuten, ez?

Bai. Banuen poesia sorta bat, eta pentsatu nuen: "Zein jarriko dut, alaia dena? Hori mundu guztiak egiten du!". Niretzat horrelako olerkiek ez dute mami askorik.

Zer nolako harrera izan du iaz argitaratu zenuen liburuak?

Koronabirusaren olatuaren ostean argitaratu nuen. Horregatik, aurkezpen guztiak Internet bidez burutu genituen. Baina uste dut harrera ona izan duela argitaletxeak bi aldiz deitu nauelako Sant Jordiko azokara joateko Bartzelonara. Nire inguruko jendearen artean ere harrera ona izan du. Nire lagunek esan didate gustukoa izan dutela, nire familiak ere... pozik nago, beraz.

Zer nolako esperientzia izan da Sant Jordi azokara joatea?

Iaz Internet bidez egin genuen. Aurten, aldiz, bertan egon gara, hotel batean, liburua sinatzen eta hitzaldi bat eskaintzen. Oso esperientzia ona izan da. Beste hiru egilerekin egon naiz, argitaletxe berekoak. Apur bat urduri geunden hasieran. Baina gero, elkar ezagutu genuenean, oso ondo moldatu ginen elkarrekin.

"Norbaitek poesia latza egiten duenean, nik gogoko dut, ikusten delako benetan barrutik ateratzen duela, eta oso ausarta iruditzen zait hori"

Baduzu poesia irakurtzeko ohitura?

Bai, egile asko ditut gogoko. Elvira Sastre, adibidez, Poetas en Mayo topaketara etorri zen, eta nire erreferentea da. Ikustera joan nintzen eta oso ondo pasatu nuen. Irene X izan zen irakurtzen hasi nintzen lehen egilea... denak emakumeak. Eleberriei dagokionez, Stephen King edo Lovecraft ditut gogoko.

Literatura iluna duzu gogoko. Zergatik?

Alaitasuna denok erakusten dugu, baina jende guztiak ez ditu sentimendu txarragoak adierazten. Gizarteak ere jartzen du muga: ez dago ondo ikusita ni txarto nagoenean hori erakustea. Eskolara noa eta pozik egon behar naiz gauzak egin behar ditudalako. Horregatik, norbaitek poesia latza egiten duenean, nik gogoko dut, ikusten delako benetan barrutik ateratzen duela, eta oso ausarta iruditzen zait hori.

Liburu berria prestatzen ari zara orain. Ezberdina izango da?

Ez, alor berdina jorratuko du: poesia ilunak, hainbat gaiei buruzkoak. Baina nire bilakaera pertsonala ere ikusiko da. Hiru ataletan sailkatuko ditut olerkiak. Kapitulu bakoitza independentea izango da besteekiko, eta gai ezberdinak jorratuko dituzte.

Baduzu beste literatura generoren bat jorratzeko asmorik?

Beti izan dut buruan fikziozko zerbait argitaratzea. Nire asmoa ez zen poesia egitea, baina horri ekin nion eta horretan murgildu naiz. Baina uste dut noizbait egingo dudala beldurrezko libururen bat, asko gogoko baitut genero hori. Ez dut proiektu zehatzik buruan. Batzuetan gauzak bururatzen zaizkit eta idatzi egiten ditut, baina ez naiz ezer osatzen ari.

Poesia berez ateratzen zait. Bada ahalegina, baina ez asko. Apur bat desastrea naiz, eta inoiz ez naiz jarri eleberri bat idaztera. Olerkiekin, aldiz, ez naiz horretan jarri behar. Bat-batean metafora bat bururatu ahal zait, eta hortik abiatuta garatu dezaket poesia oso bat.

kultura

Euskal Herriko beste 15 sortzaile eta eragile kulturalekin batera batera, Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren ordezkari gisa joan da Nerea Iglesias Lili laudioarra Flandiara. Bertako kultur-ekosistema ezagutzea eta arteaz hausnartzea izan du helburu topaketak

“Flandriako kultura zein arte garaikidearen arnasgune diren espazioak ezagutu ditugu”

Flandirako espazio kultural desberdinak bisitatu ditu Nera Iglesiasek. **Aiaraldea.eus**

Testua **Nerea Iglesias Lili**

Flandes Learning Tour, Etxepare Euskal Institutuak eta Flandriako Arte Institutuak elkarlanean antolatutako egitasmoa da, Eusko Jaurlaritzak Flandriako Gobernuarekin Elkar Ulertzeko Memoranduma (MoU) hitzarmenaren ondorioz. 2021eko azaroan Euskal Herrian sinatu zen programaren hasierako fasean, Flandriako eragile kulturalak Euskal Herrira bertaratu zirenean. Bigarren fasean, Euskal Herriko 15 eragile kultural Flandrian izan gara, talde heterogeneoa osatuta. Programa honen helburu nagusia bi herrialdeen artean sareak osatzea eta kulturari lotutako proiektuak garatzea da.

Flandriako lan-bisita kulturala maiatzak 31- ekainak 4 bitartean izan da. Brusela, Ganten eta Lovainako hirien ekosistema kulturaletan sakondu dugu, egun osoko egitarau intentsu eta anitzen bitartez. Azpimarratzekoa da Flandriako Arte Institutuak gure egunerokotasuna mimo eta detaile askorekin zaindu duela, eta ezagutu ditugun espazio kultural zein artista independenteek baita ere. Flandriak besoak zabalik jaso gaitu. Beraz, bizipen hau opari batizan da egoteko, mintzatzeko, begirada aberasteko eta ideiak trukatzeko; batez ere, harreman ederrak sortzeko, hor baitaude proiektuen hasierako urratsak.

Horrela, ezagutu ditugu kultura zein arte garaikidearen arnasgune diren espazio instituzionalak eta alternatiboak, hurrengo alorrei lotutakoak: musika, zirkua, arte eszenikoa, zinema, ikus-entzunezkoak, literatura... Bruselan hurrengo espazioetan egon gara: Rosas, P.A.R.T.S eta Ictusein elkarbizi dena, Wiels, Q-O2, Beursschouwburgarantz, Openofficeko lana ezagutuzbaita ere. Ganten Bijloke, les ballets C de la B, LOD, Ontroerend Goed, KIOSK, Danspunt, Circuscentrum, De Expeditie, Companie Cecilia, Aifoon bisitatu ditugu. Azkenik, Visit M Leuven, Cascon, Stuk eta Hear Here ezagutu ditugu.

“Aiaraldea Ekintzen Faktoria proiektua ezagutzera eman dugu, interesa piztu duena Euskal Herriko zein bai Flandriako eragileengan”

Hala, espazio bakoitzaren auziak, xehetasunak eta hausnarketak ezagutu ditugu. Horretaz gain, ekitaldi kulturaletara joan gara, adibidez, Rosas by Drumming, Lovainako Velodrome-n. Hortaz, esperientzia multidimentsionala izan da: bisitak, networking espazioak, ekitaldi kulturalak eta bazkariak uztartuta, egun batean, artista batekkozinatutako esplorazio artistikoak dastatuz. Bihotza artez betez. Bidaian zehar, hamaika toki bisitatu ditugu, eta Aiaraldea Ekintzen Faktoria proiektua ezagutzera eman dugu, interesa piztu duena Euskal Herriko zein Flandriako eragileengan. Beraz, orain dagokigun lana sortu den hazia ureztatzea da: jasotako informazioa ordenatu, landu, harremanetan jarraitu eta proiektuen joskintza lana abiatu. Azkenik, batu garen pertsonen artean giro osasuntsu eta familiar ederra sortu da, horrelako esperientzietan denbora bizitzeko beste tempo batean sartzen baitzara: eguneko ordu guztiak elkarbanatuz intentsitatez. Hortaz, eskerrak Institutu Etxepareari, Flandriako Arte Institutuari, Euskal Herriko eragileei, eta bereiziki, Aiaraldea Ekintzen Faktoriari, jarrai dezagun amesten eta eraldatzen. Oroz gain, gure bailaran euskal sorkuntzaren eta kulturaren tokia bermatzen, zaintzen, loratzen eta hedatzen.

Aiaraldeko trikiti eta pandero joleen topaketa, ekainaren 25ean

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aiaraldeko trikiti eta pandero joleak Laudion bilduko dira ekainaren 25ean. Egitarau sinplea antolatu dute: kalejira egingo dute goizean herriko kaleetan, eta Karrika jatetxean bazkalduko dute gero. "Tiketak salgai daude dagoeneko Amurrioko Txokogorri tabernan, Laudioko Araba kafetegian eta Aretako El Tunel jatetxean, 20 euroren truke", zehaztu du David Rodriguez Peñak. Ekimenaren antolatzaileak ez du baztertzen arratsaldean beste kalejira bat egitea, bertaratutakoek horretarako gogoak baldin badituzte. Rodriguezek azaldu duenez, gaur egun Gipuzkoa aldean egiten dira trikiti eta panderoarekin lotutako ekitaldi guztiak. "Gure zonaldean ez dago ekimenik trikiti eta panderoarekin lotuta. Horregatik, iruditu zaigu aproposa zela horrelako zerbait antolatzea, Aiaraldeko trikiti eta pandero jotzaile guztiak elkarrekin kalera ateratzera animatzeko". Antolatzaileen ustez, Aiaraldeko musikariek ez dute horrelako topaketetara joateko ohiturarik, eta hori da aldatu nahi dutela, oraingo ekimen hau "etxean" egingo dutela probestuta.

'La cena de los idiotas' antzezlana aurkeztu zuen Oihalak Zabaltzenek

Testua
Txabi Alvarado Bañares

'La cena de los idiotas' obra taularatu zuen igandean Kasinoan Oihalak Zabaltzen herriko taldeak. Umorea du ardatz antzezlanak, eta jendarteak pertsonak gutxiesteko joerak ditu hizpide komediak. Laudioko aktoreek ordu eta erdiko emanaldia eskaini zuten guztira, bi aldiz. Izan ere, 18:30ean izan zen lehenbiziko saioa, eta 20:30ean bigarrena. Bi emanaldietean harrera beroa jaso zuten partaideek ikus-entzuleen partetik. 34 urte bete ditu antzerki taldeak, eta urtero taularatzen du herriko partaideekin landutako obra, Aitor Urkijoren gidaritzapean. Hain zuzen, berak egokitua da antzerkirako testu bertsioa, jatorrizko lana *Le diner de cons* film frantziarra bada ere, 1998. urtean ekoitzia.

"Canneseko jaialdia Rails d'Or sariarekin bukatzea oso berezia izan da, brotxe galanta bidaia honetarako"

Esti urresola Canneseko jaialdian. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Berezia izan da Canneseko zinema jaialdia Esti Urresola Solaguren zinema zuzendariarentzat. 'Cuerdas' film laburra hautatu zuten finalisten artean, eta Rails d'Or saria eskuratu du aiaraldearrak. Osteguneanizan zen festibalaren sari banaketa. "Ederra izan da, oso pozik eta nekatuta itzuliko gara. Horrelako jaialdi batean parte hartzeak konpromiso asko eskatzen ditu, eta erabat aprobetxatu dugu bidaia: proiekzioa egin dugu, jende mordoa ezagutu dugu, elkarrizketa asko egin ditugu...".

Maiatzaren 25ean eskaini zuten ikus-entzunezkoa, eta pozik azaldu da emaitzarekin Aiaraldeko sortzailea: "Oso harrera ona izan du lanak Cannesen, jende asko gerturatu zaigu hunkitu dela esanez, eta nola bizi izan duten kontatuz. Hori oso gozagarria da".

Jasotako sariaren garrantziaz ere mintzatu da Urresola Solaguren: "Oso berezia izan da jaialdia publikoaren saria izan daitekeen Rails d'Or sariarekin bukatzea, brotxe galanta bidaia honetarako".

Esti Urresola Solagurenekin batera, jaialdian izan dira ikus-entzunezkoan parte hartu duten zenbait emakume: "Arabako Foru Aldundiari esker egin ahal izan dugubidaia. Gainera, emakumeen ordezkaritza txiki bat ekarri ahal izan dugu, abesbatzaren zati bat". Horiez gain, produktorea eta lantaldea ere izan dira Cannesen (Okzitania). "Oso polita izan da bidaia elkarrekin egitea, eta guztiok gozatu dugu asko. Pentsa, emakume horientzat ere zer den euren burua Cannesen ikustea", erantsi du zuzendariak. Bitxikeria gisa, Bilbotik Canneserako bidaia txikibusean egin dutela kontatu du.

Canneseko festibalari dagokionean, berezia egin zaio esperientzia Urresolari: "Zeharo goxo eta ondo tratatu gaituzte, zaintza handiarekin. Oso gertukoa izan da esperientzia, gizatiarra, Cannes instituzional horretatik harago".

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2022
FINALA
EKAINAK 11 Larunbata, 17:30ean
GASTEIZ Maria de Maeztu auditorian
(Europa Biltzar Jauregia)
Iñaki Viñaspre Simon · Manex Agirre Arriolabengoa · Oihane Perea Perez de Mendiola · Paula Amilburu Izargarai · Peru Abarrategi Sarrionandia · Xabi Igoa Eriz
Gai-emailea: Aintzane Irazusta Arzallus
Aurkezlea: Arantxa Sobrino Lasa
www.bertsozale.eus/araba - www.bertsosarrerak.eus
Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava · Laboral Kutxa · Vital · udapa FACIL · artepan · Mendia Optika · Euskadiko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala · AIARALDEA

kirola

“Nazioartean lehiatzea dut helburu”

OLATZ CAMINO ARTEAGA (Laudio, 2004)
TXIRRINDULARIAK EUSKADIKO TXAPELKETA IRABAZI DU, BIGARREN URTEZ JARRAIAN. BESTE HAINBAT SARI ERE LORTU DITU ETA NAZIOARTERA BEGIRA JARRI DA

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Euskadiko Txapelketa irabazi duzu, bigarren urtez jarraian. Zer moduz joan zen lasterketa?

Hasieran txarto sentitu nintzen. Hiru itzuli ziren. Lehenengoan azkar joan ginen, bigarrenean hobeto sentitu nintzen eta erasoa egin nuen hirugarrenean, helmugara iristeko bi kilometro falta zirenean.

Irabazteko asmoarekin joan nintzen. Esan bezala, lehen itzulian gaizki joan nintzen eta apaldu egin nintzen. Baina gero, hirugarren bueltan dena eman nuen, eta horrela lortu nuen irabaztea.

Iaz ere gailendu zinen. Ezberdintasunik sumatu duzu iazko eta aurtengo lorpenaren artean? Zer egin zaizu zailen, titulua lortzea edo defendatzea?

Biak izan dira berdinak, maila berdinekoak. Maila mantentzea lortu dudala uste dut.

Honakoa ez da azken asteetan lortu duzun garaipen bakarra.

Ez. Duela aste batzuk Almerian gailendu nintzen eta ondoren Arrigorriagan irabazi nuen, emakumezkoen klasikoan.

Ikasturte oparoa egin duzu, beraz.

Bai, helburuak gainditu ditut dagoeneko. Hemendik aurrera zerbait irabazten badut, ondo, baina nire taldeak ere irabazi behar du. Arabarrak taldearekin entrenatzen dut.

Taldearen helburuak ere bete dituzue?

Emaitza onak daude, apurka apurka. Zortzi gara taldean eta ondo moldatzen gara elkarrekin.

Txirrindularitza talde kirola dela esango zenuke?

Bai, talde kirola da, elkar laguntzen baikara. Taldekako norgehiagokak ere irabaztea dugu helburu. Kopa batean gailentzea lortu genuen.

Nazioartean lehiatzea duzu orain helburu, ez?

Bai, nire helburua da Espainiako Selekzioa nigan fijatzea, nazioarteko lehiaketetara joateko. Momentuz ez naute inoiz deitu. Uste dut deitu beharko ninduketela, baina ikusiko dugu.

Nazioartera joateko aukera izango bazenu, zein helburu izango zenuke?

Parte hartzea eta gehiago ikastea. Ezberdintasun handia dago hemengo eta nazioarteko txapelketen artean. Frantzian egon naiz duela hiru aste, eta oso maila altua zegoen. Munduko Kopa bat zen, eta asko sufritu nuen, baina asko ikasi ere bai. Bertan egoteak balio izan dit berriki lortu ditudan emaitzetarako.

Zer ikasi nahiko zenuke nazioarteko txapelketa horietatik?

Lasterketan gehiago sufritzen ikasi nahiko nuke. Burua kontrolatzen jakitean datza hori. Une honetan, aldapa gora dauden helmugetara iristen naiz ona. Amurrion edota Almerian, adibidez, mota horretako metetan lortu nituen garaipenak.

Argi duzu zer egin nazioartera joateko gonbita luzatzen badizute. Baina, hori gertatuko ez balitz, zer plan izango zenuke udarako?

Bai, lasterketa asko daude hemen udan, oso ondo planifikatua dago. Bizkaiko Koloreak klasikoa, adibidez, oso gogoko dut. Nik egin dut jada egin beharrekoa, baina denboraldia ez da amaitu. Entrenatzen eta dena ematen jarraituko dut, orain arte bezala.

Ibilbide oparoa egin duzu txirrindularitzan. Noiz ekin zenion bideari?

Bost urte daramatzat bizikleta gainean. Atletismoa egiten nuen, ikastolako klubean. Asko gogoko nuen korrika egitea, baina triatloiak egiten hasi nahi nuen. Igeriketan ez nintzen oso ondo moldatzen, eta bizikletan ere ez nintzen oso aritua. Aiarabikeko kideek talde bat osatu zuten eta batzera animatu nintzen. Infantil kategorian hasi nintzen eta asko gustatu zitzaidan. Atletismoa eta txirrindularitza, biak uztartzen hasi nintzen, baina une honetan bizikletan baino ez naiz aritzen.

Lagunak eman dizkit txirrindularitzak. Bizikleta gainean oso azkar pasatzen zait denbora, eta ondo pasatzen dut lagunekin ateratzen naizenean. Talde kirola da, eta atletismoa indibidualagoa da. Iaz ekin nion modu serioagoan entrenatzeari, Euskadiko Txapelketa irabazi ostean. Motibazio gehiago eman zidan lorpen horrek, eta balio izan zidan konstanteagoa izateko.

Zertan nabaritzen duzu konstanteagoa zarela?

Astean sei egunetan entrenatzen dut. Zazpigarrenean hartzen dut atseden, edo beste kirol bat praktikatzen dut. 2-3 orduko entrenamenduak egiten ditut. Gaur, adibidez, Euskadiko Selekzioko kideekin geratuko naiz arratsaldean. zazpi gara, eta astero biltzen gara batera entrenatzeko. Gainontzeko egunetan, aldiz, bakarrik edo lagunekin geratzen naiz, eskualdean. Arabarrak taldeko kideak Gasteizkoak dira, eta zailagoa da eurekin geratzea.

Josito Memorialaren lekukoa hartu du 10K herri lasterketak. Eguraldia lagun, ehunka kirolari elkartu zituen igande goizean Laudion ospatutako lehenengo edizioan. Lehia eta kiroltasuna izan ziren nagusi, maila guztietan

Ehunka kirolari elkartu ditu 10K herri lasterketaren lehenengo edizioak



kirola

FUTBOLA

Zaleen bultzada ez zen nahikoa izan Arbieton eta CD Orduñak partida eta kategoria galdu zituen

Kategoria galdu du CD Orduñak. **Antonio Muñoz**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

CD Orduñak 0-1 galdu zuen larunbatean SD Plentziaren aurka erregional preferenteko 1. mailari eusteko kanporaketan. Ondorioz, 2. mailan egongo da hurrengo denboraldian. Edonola ere, Arbieto jendez gainezka egon zen eta 'Euritako taldeak' egun osoko egitaraua prestatu zuen giroa berotzeko. Bestalde, gauean Javier de la Torre kapitaina omendu zuten.

CD Orduñako kideek kiroltasunez hartu dute euren egoera eta laster 1. mailara itzuliko direla adierazi dute sare sozialetan. Halaber, Iñigo Santocildes lehen taldeko entrenatzaileak bere postua utzi du eta harrobiarekin lan egingo du hemendik aurrera.

FUTBOLA

Leo Barañano abokatua egongo da Ricardo Barkalaren zerrendan Athletic Clubeko zuzendaritzako kide izateko

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Leo Barañano abokatua sartu da Ricardo Barkala presidetengaiaren hautagai zerrendan Athletic Clubeko zuzendaritzan aritzeko. Laudion zuzenbideari lotutako bulegoa du Barañanok eta Arrankudiaga-Zollon bizi da.

Horren berri eman zuen Barkalak berak iragan ostiralean Laudioko Kultura Etxean egindako topaketan Athletic Clubeko zale zein bazkideekin. Jendez gainezka egon zen gela eta aurpegi ezagun ugari egon ziren; Beñat Zarrabeitia kirol kazetaria edota Norberto Aldaiturriaga EAJko legebiltzarkide ohia eta Toño Aiz URA agentziako presidentea, besteak beste. Laudioko Udal Gobernu Taldeko kideek ere parte hartu zuten hitzorduan.

ORIENTAZIOA

Orientazio lasterketa herrikoia egingo dute Laudioko ingurune naturalean barrena

Iragan astean aurkeztu zuten ekainaren 26an egingo den Laudioko I. Orientazio Lasterketa Herrikoia. Kirol probak udalerriko ingurune naturala ezagutaraztea du helburu.

Ander Larrinaga eta Aaron Garmendia lasterketaren aurkezpenean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Kirol proba berria estreinatuko du Laudiok datorren ekainaren 26an: I. Orientazio Lasterketa Herrikoia. Iragan astean egin zuten deialdia aurkezteko prentsaurrekoa Laudioko Udalak eta Bidea Orientazio Klubak (COBI). Udalerriko ingurune naturalak ezagutaraztea du helburu orientazio lasterketak. "Udalerrian aisialdi aktiboa sustatuko duten kirol-probak garatzearen alde egin nahi dugu, gure ingurune berde eta naturalari balioa emateaz gain", adierazi zuen Ander Larrinaga Hiri Garapenerako zinegotziak.

Score modalitateko orientazio-lasterketa izango da: denbora mugatu batean ahalik eta puntu gehien lortzea izango dute helburu parte hartzaileek. Mapa batean adierazitako balizak topatu beharko dituzte horretarako. Aaron Garmendia COBI taldeko kidea arduratzen ari da kirol-probaren mapa osatzeaz: "Kamaraka eta Goikogane inguruan zentratuko dugu proba. Mapa erakargarria izango da, osatua eta azken unera arte etengabeko eguneraketak egiten joango gara ingurune naturalean egon daitekeen edozein aldaketa ondo adierazita geratzeko".

Hiru kategoria

Hiru kategoria egongo dira: lau orduko lasterketa (kategoria gorria), hiru orduko lasterketa (kategoria laranja) eta ordu bateko lasterketa (kategoria horia). Aipatu bezala, lehenengo bi kategoriak mendi ingurunean jokatuko dira. Aldai Plaza izango da hitzorduaren abiapuntu. Baina, aurreratu dutenez, sorpresa bat edo beste egongo da. "Ingurune ezagunean lehiatuko da proba, eta ez da orientazio lasterketetan aparteko eskarmenturik behar parte hartzeko; sestra kurbak eta mapako beste elementuak interpretatzen jakitea nahikoa izango da kirol jardueraz disfrutatzeko", nabarmendu du Garmendiak.

Gauzak horrela, parte hartzaileak balizaz baliza arituko dira ibilian, norberak egokien ikusten duen ibilbidea jarraituz. Taldean zein banaka egin ahalko da proba.

Azken kategoria, ordu bateko iraupena duena, herrigunean egingo da eta, orientazioa ez ezik, logika-joko sinpleak ere uztartuko ditu. "Familia giroan eta haurrekin egiteko jarduera" izango dela azaldu dute antolatzaileek.

Izen ematea zabalik

Atzo zabaldu zuten izena emateko epea, eta ekainaren 22ra arte mantenduko dute. Inskripzio orria Internet bidez bete daiteke, eta bi euroko kostua izango du. Federatuta ez dauden parte-hartzaileek 2 euro gehiago ordaindu beharko dituzte.

Sariak egongo direla ere iragarri dute. Kategoria gorrian eta laranjan, emakume eta gizonezkoen kategorietan, hiru sari banatuko dituzte puntu gehien lortzen dituzten kirolarien artean. Tokiko ekoizleen produktuez hornitutako saskiak izango dira sariak.

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. ekainaren 22an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Ibai

Gure etxeko txikiak koskortzeari daroagoio eta Tartaloren laguntzaz bihurrikeriak egiteko gogoa handituz doakio. Zorionak!

Unax, ama, aita, amatxi eta aitite

Maite

Zorionak Maite! Asko maite zaitugu! Segi aurrera!

Senideak

Arhane

Zorionak laztana!! Inoiz galduko ez duzun irribarre polit hori!! Ondo pasa eta erraldoi musu bat! Maite zaitugu!!

Peri eta Paz

Arhane

Zorionak laztana!!!
Ondo pasa zure egunean.
Maite zaitugu!!

Ekaitz, aita eta ama

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Denborapasak

ERRAZA

			9		2	3	6	5
	7					4	2	8
	2	5		3	8			7
		2			3	6		
	6		7	4	9	2	5	3
			2	5	6	8	4	
	4		3			5	8	
3	9	6	5		4			
5		8	6	2	7		3	4

ZAILA

	4		3		2			
			8					
		2				6	8	
		7		4	5	8	2	
4					8	3		
	6		7				4	5
				9	7	5		
3	8	9	4				7	
	5		2	8				

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketak

Irisarriko EHZ jaialdira joateko bonoa zozketatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian
Zozketaren data: ekainaren 13an, 12:00etan.

BATZAR OROKORRA

AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA

Eguna: 2022ko ekainaren 25, larunbata
Ordua: 10:00etan lehenengo deialdia. 10:30ean bigarren deialdia.
Tokia: Faktorian (Errotari kalea 4-8, Laudio, Araba)

Kooperatibako bazkideei deialdia

KOKORIKO

IRAKURKETA GUNEA

MAITASUNA ETA FAMILIA

Idazlea: Sophie Beer
Argitaletxea: Ibaizabal

Maitasuna eskaintzeko eta bizitzeko hamaika modu daude. Ez dago maitasun eredu bakarra. Eta hegemoniaren aurrean, ipuin honek irudi eta letren bitartez erakusten digu maitasuna modu askotan bizi daitekeela...

XIVAREN MALKOAK

Idazlea: Cesar Mallorqui
Adina: 14 urtetik gora

Misteriozko liburu baten aurrean gaude. Ez da beldurrezko istorio horietako bat, protagonistak beldurra pasatzen duen arren. Xivaren Malkoak galdutako objektu misteriotsua da, bere inguruan denetarik pasatu delarik.

JOLAS GUNEA

Hirutxuloko jolas parkea

LEKUA: Donostia, Egia auzoa (Gipuzkoa)

AZALPENA: Haurrek eta familiek diseinatutako parke bat da. Utzitako belardi bat jolasgunea egiteko aukeratu zuten eta bertan eraiki zuten.
Egia Hezitzailea egitasmoaren laguntzarekin sortu dute haurrek bertan topatu dezakegun laberintoa.

Jolaserako labirinto bat topatuko dute bertara hurbiltzen direnek. Espazioa utzitako berdegune batean dagoenez, ez dauka bestelako zerbitzurik, baina Donostitik gertu bazaudete, espazioan gozatzeko aukera izango duzue doan.

Orotariko materiala erabili da parkea egiteko eta auzolanean eraikia izan da.



DEJA VU



OSAGAIAK: 2 eta 6 jokalari
ADINA: 8 urtetik aurrera
NOLA JOLASTEN DA?
- Objektuak eta kartak mahaian utzi. Kartetan birritan 36 objektu horiek agertzen dira.
- Hiru erronda jolasten dira eta puntuak zenbatzen dira. Hasteko hiru karta gorde egiten dira.
- Txandaka jolasten da. Lehenengo jokalariak karta bat altxatzen du eta memorizatu beharko du,gero karta gorde egingo du.
- Uste denean objektu bera birritan agertu dela, objektua hartu eta bere ondora pasatuko du.
- Karta guztiak pasatu behar dira.
- Norbaitek hartua badu objektu bat eta kartan objektu hori ateratzen bada, gaizki egin duenaren seinale da.
- Hortik aurrera, gaizki egin duena fitxa gabe geratzen da eta besteek objektu bakoitzetik puntu bat irabazten dute.

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Udan zer?

Uztaila eta abuztua gainean ditugu, haurrek eskola alde batera utzi eta opor garaia hasten dute. Ikasturte osoa eskolan ordu asko sartu ondorengo ondo merezitako oporrak. Goiz esnatu beharrik ez, etxerako lanik ez... Abestiak esaten duen moduan :"Piratak bezala, lanik gabe, eskolarik gabe!"

Gurasoentzako aldiz gora beheren aldia dator. Lantegietan ez da kontziliaziorik existitzen, enpresa gehienek ez dituzte erraztasunik ematen lana eta zaintza bateratzeko. Horregatik, gurasoek ez dituzte izaten haurrek behar dituzten zaintzak eskaintzeko denbora nahikorik. Gurasoak zoroen pare ibiltzen dira, haurrekin zer egin ez dakitela. Haurrengan pentsatzen dute, baina, batzuetan, nonbaiten kokatu besterik ez dute.

Horretarako jaio ez baziren ere, gaur egun udalekuak kontziliaziorako erabiltzen dira. Gero eta ordu gehiago eskaintzen dira, normalean haurren beharrei erreparatu beharrean gurasoen denbora eta kontziliazioari begira egiten dira.

Udalekuak haurrak ondo pasatzeko, euskaraz aisialdian gozatzeko, bestelako esperientzia batzuk bizitzeko... dira. Hobeto esanda izan beharko lirateke. Udaleku bat aukeratzerakoan, ordutegia baino gehiago, zer eskaintzen duen begiratu beharko litzateke. Urtean zehar bizi ez dituzten zein esperientzia berri eskainiko dien.

Aukera badago behintzat, aukeratu haurraren beharrak erdigunean jartzen dituzten proiektuak eta etxeko behar guztiei hoberen egokitzen zaion proiektua. Haurrek udalekuetan goza dezaten, baita merezitako oporrez ere!

Itzala

Erreka harririk harri igaro nahi duen turista honek zein du itzal zuzena?

Hamahiru



Beno, beno, beno, hori da abere pila! Eta gidariek ez al dute arriskurik ikusten?! Nolanahi dela ere, aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.

Dominoan

Garaian garaikoa. Domino hau ekainean azoketan ikusiko ditugun sei gaiez egina dago. Honokoak dira: ziazerba edo espinaka, angurria, marrubia, gerezia, brokolia eta piperra. Marraztu hutsunetan falta diren irudiak, domino zati honek zentzua izan dezan.



SOLUZIOAK



Kontra

Mundutik Aiaraldera

EMMA RISSANEN

JAIOTERRIA
HARJAVALTA (2010)

BIZILEKUA
AMURRIO

BIDAIAREN ZERGATIA
ERASMUS+ PROGRAMAREN BARRUAN ASTE BATEKO EGONALDIA EGIN DU AMURRIOKO FAMILIA BATEAN

"Oso berandu afaltzen da hemen, ez dakit zergatik; Finlandian 16:00etan afaltzen dugu normalean"

Zer ari zarete lantzen Erasmus+ proiektuaren barruan?

Europa mailako proiektua da, eta herrialde desberdinetako ikastetxeak jarri gaitu elkarlanean: Euskal Herria, Finlandia, Irlanda eta Malta.

Ingelesa dugu ardatz, baina gure bigarren hizkuntzak ari gara jorratzen. Guk Finladian, esaterako, finlandiera eta suediera hitz egiten ditugu. Irlandan, Maltan eta Euskal Herrian ere beste hizkuntza batzuk daudela ikasi dugu ere.

Astebete igaro duzue Amurrion. Zer da gehien gustatu zaizuena?

Egin ditugun kirol ekintzak gustatu zaizkit gehien. Herri kirolak ezagutu ditugu eta asko gustatu zaizkit, baita esku pilota eta bola-jokoa ere. Oso desberdina da bola-jokoa hemen (barreak)

Mendira ere igo gara, eta Bilbora joan ginenean Athleticen futbol zelaia bisitatu genuen. Nik futbolean jolasten dut eta asko gustatu zitzaidan San Mames zelaia. Ez nuen taldea aurretik ezagutzen.

Amurrioko familia batean geratu zara bizitzen. Nolakoa izan da esperientzia?

Oso familia atsegina izan da, oso ondo pasatu dugu. Gainera, Amaurren eskolak hasi baino bi egun lehenago etortzeko aukera izan genuen. Ondorioz, makina batjarduera egin genituen familiekin lehenengo asteburu horretan. Urduñako jaiak ezagutu genituen, ikusgarria izan zen.

Janaria ez zait gustatu, hori aitortu behar dut. Oso desberdina da hemengo janaria eta Finlandiakoa.

Eta zerk harritu zaitu gehien?

Mendiek asko harritu naute. Finlandia oso herrialde laua da, ez dugu apenas mendirik. Alde handia dago Euskal Herriarekin konparatuz gero.

Lehen esan bezala, mendira joan ginen egun batean, eta ikusgarria izan zen.

Klima ere zeharo desberdina da. Finlandia oso hotza da. Neguan leraz joaten gara eskolara, errepide guztiak beti egoten baitira elurtuta.

Azkenik, harritu nauen beste gauzetako bat hemengo ordutegiak dira. Oso berandu afaltzen da hemen, ez dut ulertzen zergatik. Guk Finlandian 10:30ean bazkaltzen dugu eta arratsaldeko 16:00rak aldera afaltzen dugu.

Nolakoa da Finlandiako zure herria?

Ni Harjavalta izeneko 7.000 biztanleko landa eremuko herri txiki batean bizi naiz. Amaurreko ikasleak egon ziren bertan duela hilabete batzuk.

FINLANDIA

DESKRIBAPENA
Eskandinaviako penintsulan dagoen herrialdea da. Suediaren barnean egon zen 1809 arte, eta bertako ohiturak gaurdaino mantendu dituzte. Hizkuntza ofizialak finalndiera eta suediera dira, baina badira bestelako hizkuntza koofizialak, iparraldeko samiera esaterako.

AZALERA
338.145 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
5,5 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK
Finalndiera, suediera, samiera, erromaniera.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Koldo Rodriguez, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki larrakoetxea, Elixarraitz Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunate Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi Ugalde eta Alberto Martinez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko
URDUÑA ORDUÑA
Artziniegako Udala
ausolan
ARRANKUDIAGA ZOLLO UDALA AYUNTAMIENTO ARRANKUDIAGA ZOLLO
Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala
Arakaldo
OKONDOKO UDALA
LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO
AMURRIO
G! Graf!k Tellería 2, Laudio (Araba) 94 672 65 43// info@grafiksarea.ecom
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA